ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2008ko abenduaren 1a > Astelehena > VI. urtea > 213. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Hemen krisia dago, bai, baina Kongon goseak eta miserian bizi dira"



**Begoña Egaña**
Boluntarioa
Kongon > 06

**G2a** Danbaka: Elgetako kronika eta irudiak > 23

**OÑATI** 2009ko aurrekontuetan, %2,50eko igoera; gehiengoz onartu dituzte > 12

**KIROLA** Ibarreko korrikalariak txukun atzoko Donostiako maratoian > 15

**KULTURA** Umeak Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin Eskoriatzan > 27



**EKITALDI SINPATIKOA** Inaugurazioan parte hartu zutenek ohorezko arkua egin zioten Abel Barriolari, sakea egin baino lehen. *Noaoa* saioko aktoreek barre algarak eragin zituzten. OIHANA ELORTZA

**OÑATI** > ZUAZOLA-LARRAÑA INSTITUTUA

# Pilota eta soldadura uztartu zituzten zapatuan Oñatin

**OÑATI** Soldadura ikastaroak emango dituzte aurrerantzean Larraña institutuan

**PILOTALEKUA** Abel Barriolak egin zuen ohorezko sakea eraberritutako frontoian

**EKITALDIA** Idoiaga alkatea eta Jaurlaritzako zein institutuko ordezkariak inaugurazioan > 09

**DEBAGOIENA** > ARKITEKTURA

## Oztopoak apurka gaindituuz

Urritasuna dutenei begira kaleen eta eraikinen egokitzapena > 03

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzordua**k > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**KULTURA** > 'ARTE Y PIEDAD: EL ARTE RELIGIOSO EN BERGARA'

## Bergarako arte erlijiosoa ezagutzera emateko lana

Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoa jendez lepo egon zen egubakoitzean, Maria Jose Aranburu irakasle donostiarraren *Arte y piedad: el arte religioso en Bergara* liburuaren aurkezpenean. Agurne Barruso alkateak, Jaione Velilla Aranbururen tesiaren zuzendariak eta Juan Madariaga irakasleak (tesia epaitu zuen tribunaleko kide izan zena) lagundu zioten egileari aurkezpena egiten. XVI. eta XVIII. mende bitartean, Errenazimendu eta Barroko garaietan Bergaran sortutako arte lanak izan ditu aztergai Aranburuk. Haren hitzetan, "leku gutxitan egon da Bergaran sortutako arte multzoa bezalakorik eta ezagutzera eman beharra dago oraindik". > 05

Bruesa partiduetarako hobeto, ez? Nahi?

Zoaz 5. orrialdera

# 270 €-rainoko alokairuko etxebizitzak*

## "la Caixa"ren Modu oneko etxebizitzak

"la Caixa" Gizarte Ekintzaren programen bitartez, premia duten pertsonen bizi-kondizioak hobetzeko lan egiten dugu. Hori dela eta, Modu oneko etxebizitzak programak alokairurako 3.000 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du. Ordaintzeko moduko errentak izango dituzte, eta dagoeneko 1.084 eman dira.

**Arrasaten**, 148 etxebizitzako sustapen bat eraikitzen ari gara. 35 urtetik beherakoentzat, 65etik gorakoentzat, genero-indarkeriaren biktimentzat, mugikortasun murriztu iraunkorra duten pertsona minusbaliatuentzat eta guraso bakarreko familientzat dira etxebizitzok.

Zatoz "la Caixa"k Arrasaten dituen bulegoetako batera, eta egin eskaera.

Obra Social "la Caixa"




## MODU ONEKO ALOKAIRUAK ZURETZAT



*Kontsultatu baldintzak www.laCaixa.es/ObraSocial web orrian edo 943 30 63 89 telefono-zenbakian

**DEBAGOIENA** > IRISGARRITASUNA

# Oztopoak apurka gaindituz

**EGOKITZAPENA** Udalek kaleak eta eraikin publikoak urritasuna dutenei egokitzen dihardute poliki-poliki

**LAU HERRI** Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Antzuolan egindako eta aurreikusita dauden egitasmoak jaso ditugu

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Azkenaldian barrera arkitektonikoen gaineko sentsibilizazioa handitu bada ere, oraindik edonon aurki ditzakegu oztopoak. Mugikortasun arazoak ez ditugunok ez gara ohartzen gurpildun aulki batean doanak bidean uneoro trabak gainditu behar dituela.

Debagoieneko udaletan egoera horri buelta eman gura diote eta horretarako, irisgarritasun planak egin dituzte. Urritasunak dituztenendako martxan jarritako egitasmoen erritmoa motelegia bada ere, erakundeek kaleetako eta eraikin publikoetako trabak konpontzen dihardute apurka.

**ARRASATEN, 289.000 EURO**

Arrasaten, 2005ean, Tokiko Gobernu Batzarrak horren gaineko plangintza onartu zuen. Urte horretan 55.000 euro bideratu zituen etorbide eta kale nagusietan lanak egiteko. Hurrengo bi urteetan, 154.000 euro jarri zituen kale eta etorbide nagusietara doazen kaleetarako; eta aurten, 80.000 euro. Horren harira, espaloien gaineko lanen adjudikazioa gaur egingo dela jakinarazi du Udalak.

Dena dela, horrez gain, berriz urbanizatzeko hainbat proiektu egiten dihardute. Horietan guztietan kaleak irisgarritasun irizpideetara moldatzen ari dira. Besteak beste, Elizalde, Galizia, Juan Carlos Guerra eta Zerkaostea kaleetan; Uribarri-Erguin gunean eta zabalgunean. Arrasaten, bestalde, gogorarazi behar da Udalak igogailua jarriko duela Altamira auzoraino. Orain Amenabar enpresak horren gaineko proiektua egiten dihardu.

**BERGARAN, IGERILEKUAK**

Bergaran ere hainbat proiektu egin dira azkenaldian. Joan zen urtean, bigarren irisgarritasun plana onartu zen. Egitasmo zehatzak ere egin ziren: Madurako arrapala, Mintegi kaleko espaloietako tratamendua, Martinez de Iralako arrapala, Agorrosin igerilekuko irisgarritasuna, igerileku inguruko zebra bideak eta espaloiak, Zubieta kaleko zebra bidea eta Mizpildi kaleko espaloi berria.

Aurten, berriz, lanean dihardute Zabalotegi aretoko irisgarritasunean, Errotalde parke barruko bidean, Boluko eta Maria Lagundia ikastetxearen inguruko zebra bideetan, Madalena plazako espaloia luzatzen, Erregetxo plaza egokitzen eta San Pedro kalea urbanizatzen.

**OÑATIN, BIGARREN FASEAN**

Oñatin, bestalde, irisgarritasun planaren bigarren fasearekin amaitu dute dagoeneko. Santa Marina, Portu kale eta Bakardade kaleko oztopoak kendu dituzte, besteak beste. Lehen fasea orain dela bi urte egin zuten; Olapoto eta Bidaurretako biribilgunearen artean. Datorren urtean ere badute zereginik Oñatiko Udalean. Hirugarren faseari ekingo diote, San Lorentzo auzoko trabak kentzen. Bestalde, Udalak lagundu du, 105.000 eurorekin, Arantzazu eta Gomistegi arteko bidea urritasun fisikoa dutenei egokitzen.

**ANTZUOLAN, IGOGAILUA**

Antzuolan ere lanean dihardute. Urbanizazio lanak egiterakoan irisgarritasun plana kontuan hartzen da. Gainera, Udalak osasun etxean igogailua jarri zuen eta herriko zebra-bideak ere egokitzen ari da apurka. Udaletxea ahal den neurrian egokitzea ere pentsatu dute dagoeneko, igogailua jarriz. Hori noiz egingo duten, baina, zehazteke dago. Orain artekoak adibide batzuk baino ez dira.

**Arrasaten, Altamira auzoraino doan igogailuaren proiektua gertatzen dabiltza orain**

**Arantzazu eta Gomistegi arteko bidea egokitu berri dute Oñatin**



Bergarako Telesforo Aranzadi kaleko zati bat ari dira azken hilabeteotan egokitzen. M.B.



Bergarako kultura etxean ez dago igogailurik eta gurpildun aulkian doazenak ezin dira igo. M.B.

## Bergarako egoera hobera egin badu ere, asko dago oraindik egiteke

Aritz Bikuña bergararrak mugikortasun arazoak ditu eta gurpildun aulki batean ibili behar da. Azken urteotan, traba arkitektonikoei dagokionez, Bergarako egoerak hobera egin duela esan du. Adibide moduan jarri du Domingo Irala kaleko berriztatzea. Oraindik, baina, egiteke asko geratzen dela aipatu du. Esaterako, ondoko Telesforo Aranzadi kalean egiten dihardute lanek. Eskailerak arrapala bategatik ordezkatuak izan dira beheko zatian; goiko aldeko eskailerak, ordea, mantendu ezin direla salatu du. Metro batzuk aurrerago, Domingo Irala kalean, Eusebio taberna parean dagoen arrapala aldapatsua dela eta gurpildun aulkiarekin ezin dela igo gaineratu du. Horrekin batera, nabarmendu du Santa Marinako zubiaren ondoan jarritako baranda ere oztopo handia dela.

Bikuñak Agorrosinera joateko ohitura du, igeri egitera. Pozik dago igerilekura sartzeko oztoporik ez duelako. Baina, Spa gunea ez dagoela egokituta salatu du. Hango tabernara ere ezin da igo. Horren harira, azaldu du igogailua igerileku barruan dagoela eta tabernara joan nahi badu, laguntza behar duela. Gainontzeko eraikin publikoetan antzera dabil. Kultura etxean edo Irizar jauregian, esaterako, ezin da sartu. Udaletxean, berriz, ate autonomikoak behar direla gaineratu du. Garraio publikoari dagokionez, Bergarako urbanoa ez dagoela egokituta salatu du.

Bestalde, bidaiatzea oso gustuko du bergararrak. Horren harira, jakinarazi du hemengo eta bisitatu dituen tokien egoeraren artean ez dagoela alde askorik, irisgarritasunaren gainean.



Aritz Bikuña bergararra, arrapalatik igo ezinda. M.B.

**GIZARTEA** > DEBAGOIENDARRAK INDIAN

# Bombayko atentatutik gertu

## Punen, Bombaytik gertu lanean dihardute Naiara Alonso eta Xabier Eskibel bergararrek eta Joxe Ramon Axpe eta Alazne Intza oñatiarrek



Joxe Ramon Axpe oñatiarra (bigarrena eskumatik), Xabier Eskibel (laugarrena) eta Alazne Intza (esmuman) zapatuan, Punen.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Zapatu gauean, mahai baten bueltan elkartu ziren Alazne Intza eta Jose Ramon Axpe oñatiarrak eta Xabier Eskibel bergararra Punen, Indian. Haien lagun frantses batek antolatutako afarira ez zuen Naiara Alonso bergararrak joaterik izan. Ziurrenik, asteazkenean Bombayn izandako atentatua izango zuten hizpide zapatuan. Indiako gobernuak emandako datuan arabera, 150 lagun hil zituzten asteazkeneko atentatuetan eta ondorengo borroketan. Zorionez, debagoiendarrek ez dute gertuan kalterik sumatu. Baina susto galanta hartu dute guztiek, baita haien ingurukoek ere.

### ANDALUZIAKO TALDE BATEKIN

Naiara Alonsok bizi izan zuen *gertuen* Bombayko atentatua. Orain dela zazpi urte urtebete eman zuen Punen, eta gaur egun Bilboko Indolink Consulting enpresarako dabil lanean. Maiatzetik hona pare bat aldiz suertatu zaio Indiara joan behar izatea. Azken hiru asteak Indian eman ditu. Atentatua gertatu zen egunean Malagako talde batekin zebilen, Merkatal Ganbarako eta Andaluziako Parke Teknologikoko kideekin hain zuzen (23 laguneko taldea). Zapatuan hitz egin genuen Naiararekin, telefonoz: "Bangaloren Esperanza Agirreren taldearekin elkartu ginen hotelean, eta talde batean zein bestean politikariak zirenez, elkar agurtzen ibili ziren. Gero beraiek Bombayra jo zuten eta gu Punera etorri ginen. Atentuaren berri Punen jaso genuen eta jendea kezkatzen hasi zen, nahiz eta hemen seguru ginen. Ostiralean ginen joatekoak Bombayra. Logikoa denez, bertan behera geratu zen guztia eta ostegun osoa eman genuen beraiendako hegaldiak gertatzen; zapatuan atera ziren andaluziarrak, Punetik Bangalorera, eta handik Londresera. Atentuaren ondorengo egunak nahasiak eta neketsuak izan dira. Eta halakoetan sekula ez da jakiten non dagoen arriskua... Nire lankide bat, esaterako, Bilboko Portuko ordezkaritza batekin egon zen Taj Mahal hotelean atentatua izan baino bi egun lehenago; atentatuaren egunean, berriz, Taj Mahal hoteletik 50 metrora bizi den lagun uruguaiar bat, jatetxe batean sartu behar izan zen egoera ikusita. Ia *shock* egoeran zeuden bi lagun sartu ziren bertara eta jatetxeko jabeek 14 lagun eraman zituzten etxera eta telebistaz jarraitu zituzten atentatuaren gorabeherak".



Naiara Alonso bergararra.

Naiararen hitzetan, "nagusiki Internetetik eta telebistatik jarraitu ditut albisteak eta atentatuaren egileak pakistandarrak izango ote ziren zabaldu zen hasieran. Telebistan oraindik ere hipotesi horri eusten diote. Baina bitxia da klase baxuko jendeak ez duela kalean gertatutakoari buruz askorik hitz egiten egunotan. Kalean baino lantokietan-eta komentatzen da. Beste modu batez hartzen dituzte hemen halako gertaerak". Datorren zapatuan, abenduaren 6an, Euskal Herrira itzuliko da Naiara; oporrak hartzeko gogoz dago.

ESANAK

**"Gertatutakoaren ondoren, enpresek ziurrenik bi aldiz pentsatuko dute orain Indiara etortzeko"**

**Alazne Intza** > Oñatiarra

### NORMALTASUNERA ITZULI

Punen bertan Joxe Ramon Axpe eta Alazne Intza oñatiarrak eta Xabier Eskibel bergararra daude. Joxe Ramonek eta Alaznek Ulmarako dihardute lanean urtarriletik eta Xabier Eskibel Rinder India enpresan dabil azken hiru urteotan. Esan bezala, zapatuan bertan elkartu ziren, hango beste hainbat lagunekin batera afaltzeko. Lau milioi biztanle inguruko hiria da Pune; informatika enpresak eta unibertsitateko ikasleak nagusi dira han. Bombayra 150 kilometro inguru dago, hiru orduko bidaia Alazne Intzaren arabera. Ostegunean, lanera joaterakoan jakin zuten bezperan Bombayn gertatutakoa: "Zortziak aldera enteratu ginen eta normala denez zer pentsa ematen dute halakoek: Indiako zentro ekonomikoa da Bombay eta atzerritarren kontrako atentatua izan ote den galdetzen diogu gure buruari. Gure inguruan baziren hotel horretan egondakoak, baina atentatuaren egunean ez zegoen ezagunik han. Honelakoetan gertatzen den bezala, enpresek bi aldiz pentsatuko dute orain hona etortzeko... Dena dela, gu nahikoa lasai gaude orain. Uztailean ere jarri zituzten bonbak Jaipurren eta Bangaloren, eta kontrolak egoten dira, baina...".. Normaltasunera itzuli eta Indian lanean jarraitzea da Alazneren eta Joxe Ramonen asmoa. Gabonak etxean, Oñatin ospatu eta hara itzuliko dira berriz.



**Maria Jose Aranburu** > EHUko irakaslea Donostiako Irakasle Eskolan

# "Leku gutxitan dago Bergaran sortutako arte multzo bezalakorik"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoa jendez gainezka zegoela, *Arte y piedad: El arte religioso en Bergara en la Edad Moderna* izenburuko lana aurkeztu zuen Maria Jose Aranburuk egubakoitzean. Aurretik, 2001ean, *Artea Bergaran: Erdi eta Modernoaroak* lana argitaratu zuen, Jesus Gil Massarekin batera.**



Maria Jose Aranburu egubakoitzeko aurkezpenaren aurretik, udaletxean. E.M.

**Zure tesia argitaratuta ikustea pozgarria izango da, ala?**

Bai, gaurko gizartean gauzak ez badira kaleratzen, ez bazaie publizitaterik egiten, ia-ia ez dira existitzen eta oso pozik nago alde horretatik. Bergarako Udalaren babesa ezinbestekoa izan da eta eskertzekoa da.

**Nola sortu zen lan hau egiteko ideia?**

Jesus Gil Massari Bergarari buruzko monografiak egitea agindu ziotenean, artea lantzea proposatu zidan hark eta orduan ikusi genuen arte multzo ikaragarria eta kalitate handikoa zegoela aztertzeko. Eta merezi zuela horretan sakontzea. Horrela, berak urbanismoa, hirigintza eta arkitektura zibila aukeratu zituen eta ni arte erlijiosoaz arduratu nintzen. Azkenean bat beharrean bi tesi izan dira eta eskergak, mardulak biak.

**Errenazimendu eta Barroko garaiak aztertu dituzu, garai oparoa arte erlijiosoari dagokionean.**

XVI. eta XVIII. mende bitartean egindakoa ikaragarria izan zen.Familia handiki dezente zegoen Bergaran eta Amerikatik dirua ekartzean, herriarekiko harrotasuna eta esker ona adierazteko eta sinesmen kontuengatik ere diruz laguntzen zituzten erlijioarekin lotutako arte lanak. Benetan maite zuten herria eta leku gutxitan egon da Bergaran sortu den arte multzoa bezalakorik. Orain, adibidez, Azpeitiko artea aztertzen gabiltza Jesus eta biok, baina Bergarak arte multzo handiagoa daukala esango nuke.

> **"Azpeitiko artea aztertzen nabil orain, baina Bergarak multzo handiagoa duela esango nuke"**

**Noiztik ezagutzen duzu Bergarako arte multzoa? Nahikoa ezagutzen da hemendik kanpo?**

1989an, monografiak egiten hastean, izan nuen lehenbiziko kontaktua eta aurkikuntza bat izan zen niretako. Ez nuen halakorik espero. Oraindik ere lagunak ekartzean, edo unibertsitatetatik-eta etortzen direnak, harritu geratzen dira hemen aurkitutakoarekin, kalean ikus daitezkeen XVII. mendeko etxeekin edo jauregiekin. Espero dut lan honek ondare hori ezagutzera ematen laguntzea.

**Zure lan kuttunena, zein?**

Kalitatearengatik nazioartean ezaguna den San Pedroko Santo Kristoa. Baina alboan duen Amabirjina ere zoragarria da. Santa Marinako eraikuntzaren espazioa eta hango erretaula nagusia ere ederrak dira. Horiek dira gehien ukitu nautenak.

---

> ARRASATE

## Batzokiaren 100. urteurrena ospatzeko hitzaldiak astean

Egubakoitzean, abenduaren 5ean, 100 urte beteko dira EAJk Zaldibarren Batzokia zabaldu zuenetik. Hain zuzen ere, gaur egun Hotel Mondragon dagoen tokian egon zen Arrasateko lehenbiziko Batzokia. Arrasateko EAJren 100. urtemuga ospatzeko hainbat ekitaldi izango dira asteon: gaur, 19:00etan, Jose Ramon Belokiren hitzaldia izango da Batzokian; etzi, eguaztena, ordu eta toki berean, Izaskun Bilbaok jardungo du eta egubakoitzean, hilaren 5ean, Iñigo Urkullu EAJko presidentearen eta Joseba Egibar Gipuzkoako Buru Batzarraren hitzaldia izango da Kulturaten, 19:30ean.

> KULTURA

## Oñatiko Ganbara abesbatza, garaile Avileseko jaialdian

Oñatiko Ganbara abesbatzak Avileseko nazioarteko abesbatzen lehiaketa irabazi du. Esteban Urtzelaik zuzendutako abesbatzak bost kanta eskaini zituen Avilesen aurreko zapatuan, eta aste bukaera honetan eman du epaimahaiak erabakia jakitera: lehen sariaz gain, abesti librearen interpretazio onenari zegokion 2. saria ere irabazi dute oñatiarrek, *Nos amamos sin fronteras* izenburuko boleroarengatik. Hirugarren aldiz hartu du parte Ganbara abesbatzak Avileseko jaialdian. 2002an bigarren postua eskuratu zuten. Oraingo honetan 4.800 euroko saria jaso dute oñatiarrek.

> EAE-ANV

## San Andres eguneko manifestua ekarri zuten gogora Arrasaten

San Andres Eguneko manifestuaren 78. urteurrena ekarri zuten gogora zapatuan Arrasaten. Ehun bat lagun elkartu ziren EAE-ANVren sorrera ospatzeko –ekitaldian "ezker abertzalearen kimu" modura agertu zuten alderdia–. Alderdiaren ordezkari izandako Txarli Gonzalez eta Kepa Bereziartuak egin zuten berba Kulturaten, Ino Galparsoro Arrasateko alkatearekin batera. ANVren sorrera bera, jeltzaleen "abertzaletasun atzerakoi eta epelarekin eteteko" nahia eta klandestinitatean egindako urteak ekarri zituzten gogora. Ondoren lore eskaintza egin zieten herriko preso politikoei Seberon.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Abenduko zozketa

PARTE HARTZEKO | SMS 5533
harpidetza@goiena.com
Tel.: 943 08 10 50

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
10 euro abendura arte

SARRERAK
BRUESA- FC.Barcelona
BRUESA-CB Granada
Bidali AG BRUESABAR 5533 zkra
Bidali AG BRUESAGRA 5533 zkra

BONUAK
ADATS ileapaindegian edertasun BI bonu.
Bidali AG ADATS 5533 zkra

JOKUAK
Ikastolen elkartearen eskutik 8 joku ezberdin 2-3 eta 4-7 urteetako umeentzat
Bidali AG IKAS23 5533 zkra
Bidali AG IKAS47 5533 zkra

BONUAK
GIARTZU gimnasioa- estetikan edertasun BI bonu.
Bidali GIARTZU 5533 zkra

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
"LA PERLA" TALASOTERAPIARAKO BONOA (10 SARRERA).
Zozketan sartuko dira: 08-10-06tik 08-12-10ra jasotakoak

La Perla
CENTRO TALASO - SPORT



SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Kongoko gerra irudiak hemendik ikustea edo hango lurra ukitzea oso ezberdinak omen dira. Bertatik bertara bizi izan du hango egoera "beltza" Antzuolako Begoña Egañak, Arrasateko Begoña Zeziagarekin batera. Orain dela gutxi itzuli dira baina Kongon dute gogoa eta bihotza. Hemen krisia da hizpide, baina han goseak bizi dira eta pentsatze hutsak nahieza sortzen die.

**Begoña Egaña** > Boluntarioa Kongon

# "Hemen krisia dago, bai, baina Kongon goseak eta miserian bizi dira"

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

**Katangan egon dira, hainbeste entzuten den Kongoko gerra dagoen ingurutik urruti. Likashi, Kansenia, Bunkeya, Luishia eta Kabulungo misioak bisitatu dituzte eta gerra zantzuak urrun izan arren miseria gertuan sentitu dute. Orain hara bidaltzeko aitzurrak ordaintzeko kanpaina dute esku artean.**



Begoña Zeziaga arrasatearra eta Begoña Egaña antzuolarra Kongoko emakume batekin hango txabola baten aurrean. GOIENKARIA

**Nolatan joan zarete Kongora?**

Luis Mari Gerrikagoitia misiolari bilbotarrari laguntzera joan gara. Gainera, Antzuolako Bittor eta Andres Arbuluk eta Aretxabaletako Tomas Madinabeitiak Kongon egin dute lana herri bati ura emateko. Banuen gogoa lan hori bertatik bertara ikusteko eta abian diren beste proiektuen berri ere izan dugu. Behin han egonik ahal zenean lagundu dugu.

**Aurrez ere izana zara Kongon.**

Orain dela 26 urte egon nintzen han eta dena berria izanik gauzak ez dira hain barrutik ikusten. Kongo baliabidez oso aberatsa da: kobre, kobalto, uranio…, baina aberastasun horretan sekulako miseria ikusten da. Txinatarrek eta amerikarrek aberastasun hori guztia ateratzen dute hango bizilagunak esplotatzen eta herriarengatik ez dute ezertxo ere egiten.

**Ezer aldatu da urteotan?**

Urte hauetan pentsatzen nuen aberastuko zela pixka bat herria baina atzeraka joan dira gauzak. Orain dela 26 urte ez zegoen errepiderik, baina gaur egun ere ez. Dauden bideetan sekulako kamioiak eta makinak ikusten dira mehatzetara doazenak. Hangoek, aldiz, ura oso urruti dute, argirik ez dago toki gehienetan. Beharbada, ospitaleak aldatu dira. Garai hartan gaixoaren familia guztia ez ezik etxeko animaliak ere egoten ziren ospitaleko gelan. Orain, oheetan aparrezko koltxoiak dituzte, animaliak kanpoan daude eta janariak kanpoan gertatzen dira. Bestalde hemendik egiten dugun bekatua da gauza gehiegi bidaltzea eta eramatea. Orain dela 26 urte umeek ez zuten eskurik luzatzen, orain, ordea, eskatu egiten dute, hori erakutsi diegulako.

**Gerra bete-betean dago Kongo. Nola bizi izan duzu hori?**

Gu egon garen lekutik urruti daude gerran. Gainera, joan ginenean oraindik hemen ez zen gerraz askorik entzuten, han ginela hasi zen indarra hartzen. Hangoek oso garbi esaten zuten zer gertatzen zen: gerran dauden tokian koltana dago, sakelako telefonoendako, ordenagailuendako… ezinbesteko minerala. Aberastasuna handia da eta horren atzetik AEBak daude.

**Zein dira behar larrienak?**

Gosea dago, eta behar asko dituzte, laguntzeko modu bat da baliabideak eramatea, baina zaila da hemendik ezer egitea, hango gobernuak egin ezean. Mobutu hil zenean Kabila sartu zen eta hasi zen garbiketa egiten. Ez zenez komeni bera garbitu zuten eta semeak hartu zuen agintea. Orain amerikarren mende bizi dira.

**Aitzurrak, esaterako, ezinbestekoak dira eta kanpaina egiten diharduzue horiek bidaltzeko.**

Lurra badaukate eta hori lantzeko aitzurrak behar dituzte. Orain dela urte asko hemendik bidalitakoak hondatuta daude. Aitzurrak falta zirela ikusi eta bueltan pentsatu genuen kanpaina egitea aitzurrak erosteko dirua lortzeko. 5.000 bidali ditugu eta gastu horri aurre egin behar diogu. Bergarako San Joxepe abesbatzako kideak prest agertu ziren 100 aitzur ordaintzeko. Baina, gure sorpresa izan da 200 aitzurrendako dirua jaso dutela. Bihotzez eskertzekoa da erretiratuen borondatea eta baita ere kanpainaren berri izan eta diruz lagundu duten beste norbanakoena. Oraindik aitzur asko dago ordaintzeko eta zenbat eta gehiago lortu hobe.

**Nola bizi duzu hango gerraren berri hemendik jasotzea?**

Oso gaizki. Hango eta hemengo errealitateak ezin dira alderatu baina badira egoerak oso gogorrak iruditzen zaizkidanak. Han, ospitalean sekulako ilarak egoten dira sendagaiak hartzeko eta denbora mordoa ematen dute zain; hemen, sendagileak ordu laurdeneko atzerapena duenean kexatu egiten gara, eta hori osasun zerbitzua eskura dugunean. Gauza txiki horiek ikusita bueltа ematea kosta egiten zait. Kongo erabat beltz ikusi dudala esaten diot jendeari. Hemen krisiaz berba egiten da, eta krisian gaude, bai, baina han goseak bizi dira.

**Berriz bueltatuko zinateke?**

Berehala joango nintzateke. Badakit berehala ez dela izango baina bueltatuko naiz, seguru. Aprobetxatu behar da joateko aukera hemengo jendea han dagoen bitartean, bakarrik joaterik ez dago. Ikusi ditugu kaleko umeak hartzen dituzten etxeak eta turismo egitera joanez gero, ez dago horrelakorik ezagutzerik. Umeek ahora sartzeko ezer ez izan arren irribarrea beti dute ahoan. Gainera, daukaten apurra emateko gertu daude beti eta guri kosta egiten zaigu soberan daukaguna ematea ere. Euren aurrean ezin da negarrez hasi baina zenbaitetan gogoa sekulakoa sentitzen da.

ABERASTASUNA

**"Mineraletan herri aberatsa da Kongo, baina AEBak daude aberastasun horren atzean"**

AITZURRAK

**"San Joxepeko abesbatzak 200 aitzur ordaintzeko adina diru eman digu eta eskertzekoa da"**

ITZULERA

**"Badakit berehala ez dela izango baina Kongora bueltatuko naiz, seguru"**

## oharrak eta deialdiak

OÑATI

**> Emakumeenganako indarkeria, berbagai**

*Zeri buruz ari gara emakumeen aurkako indarkeriaz ari garenean?* izenburuarekin, hitzaldia egingo du Norma Vazquez psikologo mexikarrak eguenean, abenduak 4, kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI

**> Arreta gabeziaren gaineko azken jardunaldia**

Arreta gabezia familian zelan tratatu landu dute Elkar Heziko gurasoek hainbat jardunalditan, eta bihar, martitzena, guraso guztiek praktikan jarritako ariketen zuzenketak partekatzeko aukera dute. Arantzazuko Amako egoitzan batuko dira, 18:30ean.

ELGETA

**> Gizonduz ekimenaren aldeko sinadurak**

Elgetako Udalak bat egin du Emakundek bultzatu duen Gizonduz delako ekimenarekin. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako idatzia da. Horrekin adostasuna adierazteko sinadurak batzen dabil Udala hilaren 14a arte.

ELGETA

**> Bigarren eskuko kirol azokarako materiala**

Bigarren eskuko kirol materialaren azoka egingo dute abenduaren 12an eta 13an, eta inork materiala salgai jarri nahi badu, udaletxera eraman behar du, izenarekin eta salmenta prezioarekin, abenduaren 11 arte.

ANTZUOLA

**> Gernu-ihesaren inguruko hitzaldia, eguenean**

Gernu-ihesaren (txizari ezin eustearen) gaineko hitzaldia egingo du Pakea Galdosek eguenean, hilak 4, Olaranen, 17:30ean.

ARRASATE

**> Elikadura eta joskintza ikastaroak, Ekinek**

Ekin Emakumeak elkarteak elikadura eta sukaldaritza osasuntsu eta joskintza ikastaroak antolatu ditu. Elikaduraren gainekoa astelehen eta eguenetan emango dute, zortzi egunetan, bi orduko saioetan; joskintza tailerra bi orduko hiru saiotan emango dute, abenduaren 9tik 11ra. Argibideetarako, deitu 943 79 83 70 edo 943 76 93 94 telefonoetara.

ARRASATE

**> San Joseperako iradokizunak, KZgunetik**

San Josepe harrobiaren etorkizunaren inguruko iradokizunak bidaltzeko dei egin du Arrasateko Udalak. *www.kzgunea.net* webgunetik egin daitezke.

ESKORIATZA

**> Euskaraz ez dakiten gurasoendako**

*No sabemos euskera. ¿Cómo podemos ayudar a nuestros hijos?* delako hitzaldia egingo dute Julio Ibarra kazetariak eta Iñaki Eizmendi gizarte hezitzaileak bihar, martitzena, Ibarraundin, 19:00etan.

BERGARA

**> Aromaterapia ikastaroa egingo dute**

Bizikasi bitartekaritza zerbitzuaren, San Joxepe elkartearen eta BEKEren eskutik aroma- terapia ikastaroa. Argibideak: 943 76 93 94 (Miren Errasti).

ARRASATE

**> Kontseiluaren ekitaldirako autobusak**

Abenduaren 13an Kontseiluaren 10. urteurreneko ekitaldira, BECera joateko autobusak antolatu dituzte. Izenematea AEDn, AEKn edo Elkar dendan.

BERGARA

**> Odol ateraldia eguaztenean**

Abenduaren 3an eta 17an egingo dituzte urteko azken odol ateraldiak, ohiko ordutegian.

ESKORIATZA

**> Euskararen egunean, Emuen hitzaldia**

*TELP: Norberaren hizkuntza portaerak aldatzeko gakoak* hitzaldia etzi, eguaztena, Ibarraundin, 18:30ean.

ARRASATE

**> Jostailuen truke merkaturako batzea**

Gabonetako jostailuen truke merkatua egingo du Txatxilipurdik, eta jostailuak batuko dituzte: Arimazubi plazan (abenduak 3 eta 11), Santa Marinako ludotekan (abenduak 9), Okendoko ludotekan (abenduak 2 eta 10) eta Santa Marinako parkean (abenduak 4); denetan, 18:00etatik 19:30era.

BERGARA

**> Musika Eskolako batzarra abenduaren 2an**

Batzar nagusia bihar Musika Eskolan: 18:30ean lehen deialdia, 19:00etan bigarrena.

ARRASATE

**> Arrasateko EAJren mendeurreneko ospakizunak egingo dituzte gaur, astelehena, hasita**

Arrasateko EAJ sortu zela 100 urte betetzen dira, eta honako ekintzak izango dituzte: Jose Ramon Belokiren hitzaldia, gaur, astelehena; Izaskun Bilbaorena, etzi, eguaztena (biak, batzokian, 19:00etan); eta egubakoitzean, hilak 5, Iñigo Urkulluren eta Joseba Egibarren hitzaldia Kulturaten, 19:30ean, eta afaria gero.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



Ubane Madera > arrasate@goiena.com

# Eta zergatik ez Euskal Selekzioa, eta kitto?

Azken egunotan bada gai bat bueltan-bueltan dabilena alde guztietan: Euskadi ala Euskal Herriaren izenean jokatu behar duten euskal futbol jokalariek. Aste batzuk besterik ez dira falta partidurako, eta oraindik guztia airean dago. Zela daiteke hori?

Akaso eztabaida horrek badu bere arrazoia; ados edo kontra daudenek eskubide osoa daukate euren iritziak plazaratu eta euren izena edo irudia norberak nahi duen moduan erabiltzeko. Bale.

Baina, halako gai delikatua komunikabideen bitartez gizarteratu baino lehen eta euskal gizartea modu horretan nahastu eta eztabaida antzura bideratu baino lehen, bide alternatibo posible guztiak aztertu beharko liratekeela pentsatzen dut; adibidez, kasu horretan beste izen bat aukera daiteke, erraz erraza da, gainera: ez gara ba euskaldunak guztiok? Ba horixe: Euskal Selekzioa edo Euskaldunon Selekzioa izan daiteke gure ordezkaria. Eta kitto.

**"Kokoteraino gaude euskaldunok ez garelako gauza adostasunerako"**

Baina ez. Gure Euskadi edo Euskal Herri honetan (nahiago duzuen moduan) beti berdin. Ez gara gauza ezer erabakitzeko egundoko eztabaida barik. Eta kokoteraino gaude.

**> Kutxa eta BBKren arteko prozesuan ere agerian geratu da alderdi politiko eta sindikatuen arteko adostasun falta izugarri hori, eta automatikoki, ezer negoziatu barik gurago dutela eztabaidatu.**

**> Kirol federazioek eskaera egin dute partidura joateko, bai jokalariei eta baita zaleei ere; bada eskaera bastante antzua dela pentsatzen dut; partidua jokatuta ere, arazoak konpondu barik segitzen du.**

## debagoiendarrak kanpoan

Saioa Garro > Arrasate

# "Drogamenpekotasuna zuten pertsonekin lan egiteak asko irakatsi zidan"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Madril azkar bizitzera behartzen duen hiria dela dio Saioa Garrok (Arrasate, 1976). Azkar bizitzeak ez du zertan gaizki bizitzea esan nahi, eta oso gustura bizi da hiriburuan. Hori bai, noizean behin Arrasateko lasaitasunaren beharra sumatzen du. Psikologian lizentziatua, oso gustura dago bere egungo lanarekin: Avon Cosmetics enpresako dibisio bateko giza baliabideen arduraduna da. Zinema eta bidaiatzea dira bere zaletasun nagusiak.**

**Ia hamarkada osoa Madrilen. Arrasate uztea gogorra egin zitzaizun?**

Hasieran gogorra egin zitzaidala gogoratzen dut. Madrilera etorri aurretik Donostian izan nintzen bost urtez, baina hona etortzeak aldaketa handia suposatu zuen nire bizitzan. Familia eta eguneroko momentuak alde batera uztea gogorra izan zen niretzat.

Gainera, bizi erritmoa azkartzera behartzen zaitu Madrilek; hemen guztia doa azkarrago, baina azkenean, konturatu gabe, erritmo berrira moldatzen zara. Hala ere, hemengo erritmo azeleratu honek nazkatzen banau beti daukat Arrasatera ihes egiteko aukera.

**Zer du Madrilek Arrasatek ez duena? Eta zer Arrasatek Madrilek ez duena?**

Madrildik gehien gustatzen zaidana hiriko jendearen aniztasuna da, ia gehienok kanpokoak gara eta horrek bizimodo ezberdineko jendea ezagutzeko aukera ematen du.



**Etxetik lanera, 45 minutu**

Espainiako hiriburuan trafikoa eguneroko oztopoa dela dio Saioa Garrok. Egunero 45 minutu behar ditu lanera heltzeko.

Arrasaten ez dago hemengo lan aukera berdina; hemen lan eskaintza gehiago daudela esango nuke. Bestalde, aisialdi aukerak ere amaigabeak dira.

Madrilen, berriz, ez ditut Arrasaten ditudan familia eta lagunak. Hau da, nire jendea Arrasaten dago. Bestalde, hiriak ez du lasaitasuna eskaintzen, eta ezta paraje ederrak ere.

**'Proyecto Hombre'-n gertutik ezagutu zenituen drogamenpekotasuna zuten hainbat kasu. Nolako esperientzia izan zen?**

Urte haietan bizitako esperientzia oso aberasgarria izan zen niretzat. Psikologo bezala oso egoera larrian bizi diren pertsonekin lan egiteak asko irakatsi zidan. Pertsonalki bizitza beste era batera ikustera lagundu zidan.

**Egun Avon Cosmetics makillajea saltzen duen enpresan diharduzu. Zein da zure lana?**

Avon-en hiru urte daroat. Oso gustura nago hemen, zorionekoa naizela esan dezaket. Aurreko lanarekin konparatuz ['Proyecto Hombre'-n] aldaketa handia izan zen niretzat, baina azken finean, niri pertsonekin lan egitea gustatzen zait, eta horretan egiten dut lan. Izan ere, enpresaren dibisio bateko giza baliabideen arduraduna naiz.

**Ba al duzu bisitan etortzeko ohiturarik?**

Bai, hilabetean behin Arrasatera joaten saiatzen naiz. Finean, ia nire bizitza osoa nire herrian dago: han daukat familia, han lagunak... Eta, esan bezala, han daukat lasaitasuna.

**kale inkesta**

# Zer iruditzen zaizu BBKren eta Kutxaren bat-egitea bertan behera geratu izana?



**Carlos Maestre**
Langilea
Bergara

Gaizki iruditzen zait Kutxak eta BBK-k bat egin ez izana. Kutxa guztiek izaten dute bat-egiteetarako joera eta denon onerako izango litzatekeela uste dut. Gainera oso boto alde txikiarekin bota dute atzera.



**Pedro Castro**
Erretiratua
Bergara

Bat egin beharko lukete. Nik uste bat-egitea atzera botatzeko arrazoia politikoa izan dela ekonomikoa baino gehiago, eta ez litzateke horrela izan behar. Nik uste bat-egitea ona izango zela herritarrontzat.



**Andoni Larrañaga**
Langilea
Bergara

Ez nuen uste hau gertatuko zenik, pentsatzen nuen gauzak hobeto lotuta egongo zirela. PP eta PSE-EE bat-egitearen kontra egoteak ez nau hainbeste harritzen, ELA kontra egoteak bai. Baina ez dut iritzi garbi bat.



**Nekane Gabilondo**
Langilea
Bergara

Badirudi ekonomiaren aldetik onerako dela kutxa txikiak elkartzea. Nik uste erabaki politikoa izan dela argi eta garbi. Caja Vitalek ere bat egiteko oraindik denbora gehiago pasatu beharko dela uste dut.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 02

## goienkaria@goiena.com

OÑATI

**> Urritasuna dutenendako egin duten bidearekin pozik**

Irakurle batek e-posta bat bidali digu eskerrak emanaz Arantzazun egokitu duten bidea egitearen alde lanean ibili diren guztiei. Arantzazu eta Gomistegi artean kilometro pasatxoko bidea egin dute, ikusmen, entzumen eta adimen urritasunak eta urritasun fisikoak dituzten pertsonendako. Idatzi digun lagunak dio berak ere baduela urritasun bat, eta gisa honetako ekimenekin berdinago sentitzen dela, berak eta berak moduan beste urritasun batzuk dituzten pertsonek gainerakoek moduan naturaz gozatzeko aukera dutelako.

ESKORIATZA

**> Eskerrak emakumeen kontrako indarkeria salatu dutenei**

Aurreko martitzenean izan zen emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna, eta Eskoriatzako herritar batek mezua bidali digu eskerrak emanaz han-hemenka egin diren ekintzetan parte hartu duten guztiei. Adierazi digu, oraindik ere, tamalez, ez dituela behar beste gizonezko ikusten egiten diren bilkuretan.

ANTZUOLA

**> Abenduaren 3an euskararen eguna ospatzera**

Antzuolako lagun batek deitu digu erredakziora abenduaren 3an euskararen eguna dela-eta antolatu diren ekintzengatik galdezka. Bide batez, dei egin nahi izan die debagoiendar guztiei ekintzotan parte har dezaten, eta beti euskaraz berba egin dezaten.

**usteak uste**

**Julen Iriondo**

# Bejon dagiala, Abel

Asteburu honetan eliteko kirolariekin denbora bat konpartitzeko aukera izan dut: Haimar Zubeldia –Tourrean bosgarren egindakoa–, Markel Irizar eta Iban Velasco txirrindulariekin, eta Abel Barriola pilotariarekin –buruz buruko txapeldun izana–. Guztiekin izan dut aukera berdinetik berdinera jarduteko, ogibide desberdinak dituzten bi pertsona edozein bezala. Tartetxo honetan Abel Barriolarena aipatu gura nuke bereziki. Leitzatik Oñatiraino etorri frontoi koxkor baten ohorezko sakea egitera; ekitaldian bildutakoen artean jator baino jatorrago portatu, alkatearekin brometan eta dena; pazientzia handiz dozenaka gaztetxori autografoak sinatu... "Ekitaldi hartan ginenok aurrerantzean hirekin izango gaituk, Abel!".

**zorroztailea**



**Joxemari Muxika**

# Aldarrikatzea ez da nahikoa

"Boto asmoan EAJ eta PSE-EE berdinduta daude Eusko Soziometroarean arabera. Inkesta horren ondorioek jaso dutenez, datozen hauteskundeetan herritarren %16k emango liokete EAJri botoa, hain justu, PSE-EEri emango diotenen kopuru berak. PPri %7k botako liokete; ezker abertzaleari, %6k; EBri, %3k; EAri, %2k; eta Aralarri, beste horrenbestek. Beste taldeei emango liekete botoa %4k, edo zuri bozkatuko lukete, eta %21 abstenitu egingo lirateke"
Berria > 2008-11-29




Lege aldaketa egiteko burujabetza behar da eta gaur egun muga handiak daude honetarako. Gune gehienetan euskara babestearen aldeko nahiko botorik ez baitago, bestela, baloratu 2009rako botazio aurreikuspena.

Helburu bat lortu nahi denean agintea izateak, "burujabetzak", erraztu egiten du helburuaren lorpena, baina proposamenak egiterakoan ezin gara aldarrikapenetan geratu."Euskara ofiziala orain" edo "euskararentzat babes legala" eskatzea ez da nahikoa. Gure esku ditugun erakunde guztietako giza-harreman guztietan euskara erdararen pareko ezarri behar da eta aldarrikapenak gauzatzea posible dela erakutsi. Erakunde pribatu guztietan euskara ofizial ezarri beharko litzateke (gastronomia, kultura, kirola eta beste elkartetan, alderdi politiko, sindikatu, musika eskola, katekesi, ... guztietan), lan-hizarmen, barne araudi, estatutu eta bestelako arau adostuen bitartez.

> **"Euskara ofiziala orain' edo 'euskararentzat babes legala eskatzea' ez da nahikoa"**
>
> **"Ohiturak eraldatzeko norberak bereak aldatu behar ditu"**

"Erakundeak euskalduntzea" beharrezkoa da, baina ez ahaztu euskaldun asko dabilela euskaraz jakin arren bere lagunekin erdaraz hitz egiten: familian, agintari politikoen artean, kirolarietan, eta abar. Erakundeetan euskara ofizialtzean pertsonek jokaera aldatzea lortuko litzateke edo erdaraz hitz egiten jarraituko luteke? Ohiturak eraldatzeko norberak bereak aldatu behar ditu eta hau asko kostatzen da.

Zer egingo dugu, "Euskara ofiziala Euskal Herri osoan" aldarrikatu eta itxaron? Edo besteek egingo dutenaren zain geratu gabe, zerbait garatzeko ados jarri? Euskalgintzan batasuna behar da, baina ez aldarrikapenetarako bakarrik, baita egin daitekenaren esparrutan elkarlana adosteko ere. Gaurtik has gaitezen utopia sinesgarria egiten.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Jon Berezibar, Julen Iriondo, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> BERGARA**
Herrian izan dira Miguel Altunarekin proiektu berean ari diren Europako zentroetako kideak > 11



**> OÑATI**
PPren aurkako boto bakarrarekin onartu dute %2,5eko igoeradun aurrekontua > 12



**> ARETXABALETA**
Copreci lantegia dagoen tokian handitu edo Zubikoa eremura aldatu aztertzen dabil Udala > 13

**OÑATI** > RM ZUAZOLA-LARRAÑA BH INSTITUTUA

# Soldadura tailerra eta frontoi eraberritua inauguratu dituzte

**FORMAKUNTZA**
Institutuan emango dituzte aurrerantzean soldadura ikastaroak

**ESKUALDATZEA**
Ia bi hamarkada zeramatzan Udalak ikastarook ematen

**PILOTALEKUA**
Goitik behera berritu dute: paretak, zorua, sabaia, aldagelak...

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

Azken 18 urteetan Oñatiko Udalak eman duen soldaduraren gaineko formazioa Zuazola-Larraña institutuaren esku geratu da. Iaz sinatu zuten hitzarmena, eta zapatuan irudikatu zuten, tailerraren inaugurazioarekin. Ekitaldian izan ziren, besteak beste, Lourdes Idoiaga alkatea, Kepa Altube institutuko zuzendaria eta Josu Aboitiz Lanbide Heziketako Eusko Jaurlaritzako arduraduna, herriko eta ibarreko hainbat ikastetxetako ordezkariekin batera.

Oñatiko Udala 1989. urtean hasi zen lanerako prestakuntza ikastaroak antolatzen. Garai hartan %14,5 zen langabezia tasa. Urte hauetan guztietan emandako ikastaroak asko eta alor desberdinetakoak izan dira: mekanika, sukaldaritza, elektrizitatea, informatika..., baina arrakasta gehien izan dutenak galdaragintza eta soldadura dira. Guztira, 33 ikastarotan 540 ikasle izan dira.

**ENPRESEN ESKARIZ**

Herriko enpresa garrantzitsuenen eskaerari erantzunez erabaki zuen Udalak soldadura ikastaroak martxan jartzea. Langabetuei lanerako bidea erraztea eta lanean dabiltzanak hobeto prestatzea izan da ikastaro hauen helburua.

Ia bi hamarkadatan zerbitzu hau zuzenean kudeatu ondoren, iaz erabaki zuen Udalak soldadura arloko prestakuntza Zuazola-Larraña institutuari eskualdatzea. Horretarako, lagapen hitzarmen bat sinatu zuten bi aldeek, Udalaren ekipamendua eta INEMeko homologazioak institutuari utziz. Orain arte Udalaren instalazioetan egon den ekipamendua 15 soldadura postuk osatzen dute, eta beste hiru jarri ditu eskolak.

Udaletik bi aldeen mesederako ikusten dute erabakia, prestakuntza ikastetxeen eginkizuna delako, eta hezkuntza arautuko ikasle kopurua jaitsi egin den arren, prestakuntza ez arautuko esparruak eta aukerak zabaltzen ari direlako. Zentzu honetan, Josu Aboitizek zapatuan adierazi zuen Lanbide Heziketan dagoela krisiaren irtenbidea: "Azken urteetako beherakada eten eta matrikulazio kopuruak gora egin du. Titulu berriak ere aterako ditugu datorren ikasturtean". Lourdes Idoiagak gaineratu zuen langabezia aurreikuspen gogorrei aurre egiteko garrantzitsua dela Zuazola-Larraña insitutuarekin martxan jarri dutena moduko elkarlana.

Bere egoitzan soldadura tailerra ezarrita eskaintza handitzeko aukera du orain institutuak. Aurrerantzean,beraz, Zuazola-Larraña institutuan emango dituzte ikasle, langile eta langabetuendako soldadura ikastaroak.

**IKASTETXEKO FRONTOIA**

Baina soldadura tailerrarekin batera institutuko frontoi eraberritua ere inauguratu zuten zapatuko ekitaldian. Hirurogeiko hamarkadan egindako frontoia da, eta hainbeste urte pasatuta berritzeko premia handia zuen. Honela, goitik behera txukundu dute pilotalekua: paretak, zorua, sabaia, aldagelak, komunak...

Ohorezko sakea egiteko ardura Abel Barriola Aspeko pilotari leitzarrak izan zuen, antzezle ezagunak botilero lanetan zituela. Besteak beste, *Noaoa* saioan ikusi izan ditugun Mikel Laskurain eta Egoitz Lasa aktoreek umore puntua eman zioten ekitaldiari. Amaitzeko, herriko pilotari gazteek partidua jokatu zuten.



**KEPA ALTUBE** zuzendaria erakundeetako ordezkariei azalpenak ematen. J. I.

## Barriola: "Guk jokatzen dugun frontoi askok gura lukete honek duenaren moduko zorua"

Zapatukoa izan zuen aurreneko aldia Oñatin Abel Barriolak. Sekula egon gabea zen, eta behin etorriko eta, nola ez, pilotarekin lotutako hitzordu batera izan da. Ez, ordea, jokatzera; ikastetxe bateko frontoi txiki bezain goxoa inauguratzera baizik: "Pilotalekua baxu samarra da. Agian adin batetik aurrerako pilotariendako ez, baina gaztetxoenendako oso aproposa. Oso leku bildua, goxoa eta atsegina ematen du pilotan jokatzeko, eta batez ere zorua oso ona du. Nahi genuke profesional mailako partiduak hartzen dituzten frontoi askok horrelako lurra edukitzea", zioen Barriolak.

Pilotan ikasteko frontoi guztiak onak direla adierazi zuen Barriolak, baina institutukoak baldintza bereziak dituela gaineratu zuen: "Umeek zaletasuna izatea, pilotan jarraitzea eta ikasteko gogoa izatea da inportanteena. Baina egia da, adibidez, negurako oso pilotaleku aproposa dela hau. Hotzak asko eragiten digu pilotarioi, neguan zailagoa izaten da eskuak berotzea-eta. Frontoi honek neguan jokatzeko oso aproposa ematen du, txikia eta goxoa delako". Oñatira zetorren lehenengo aldia zela-eta, alkateak gonbitea egin zion Barriolari: "Hurrengo txapelketa aurretik etorri zaitez Arantzazura, lagunduko dizu-eta irabazten".



Abel Barriola autografoak sinatzen, ohorezko sakea egin ondoren. OIHANA ELORTZA

**AED** > URTEURREN EKITALDIAK

# Orain 25 urtetik "amets eta lan egin dutenei" omenaldia

Eguaztenean 19:00etan Kulturaten egingo dute ekitaldia eta herritar guztiei zabaldu gura diete gonbidapena

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Eguenean bertan amaitu zuen euskara elkarteak azken hitzaldi sorta, euskararen geroari buruzkoa, eta bukatu bezain laster gertu dauzkate hurrengo ekitaldiak. Etorkizunaren zalantzei buruz jardun eta gero atzera begiratzea egokituko zaie orain eta eguaztenean hainbeste urtetan euskararen alde lanean jardun dutenei eta herritarrei egin gura diete omenaldia. "Oso pozik gaude lortutako erantzunarekin". Horrela, gustura, azaltzen da Josu Errarte, 25 urteurreneko ospakizunen koordinatzailea, ekintzek izandako harrera ona eta aipatzen du horien edukia ere gustatu zaiola jendeari.

Eta, hain zuzen, jendeari, hau da, herritarrei egongo da zuzenduta hurrengo ekitaldia, etzi egingo dutena. "Batetik, bere garaian AEDren sortzaile izandakoak eta 25 urte hauetan haien ametsa izan eta lana eskaini duten haiei" egingo diete omenaldia Errartek azaltzen duenez. Arrasateko herriari eta proiektuaren babes eta sustatzaile izan direnei ere eskertuko diete urteetako lana. "Izenen zerrenda osatzerakoan beti dago arriskua. Izan ere, hainbeste lagunek lan egin duen proiektu honetan hainbat aitatu eta beste hainbat ahaztea gerta daiteke" , dio antolatzaileak. Omenaldia, beraz, eskertze orokorra izango da: "Arrasatear orori dago zuzenduta, hortaz, herritarrei zabalik".

Txalapartari, bertsolari, dantzari, txistulari... ekitaldi polita izango dela ziurtatzen du Errartek. Mokadutxoa ere eskainiko dute amaieran. Ekitaldiaren saio nagusian Jokin Labaienek eta Xanti Iparragirrek jardungo dute bertsotan, euskaldunen belaunaldi biren lekuko.

**OMENALDIA** > HERRITARREN PARTE HARTZEA GURA DUTE ANTOLATZAILEEK

# Jose Letonari datorren zapatuan egingo dioten omenaldira batzeko deia egin dute

**J.B.** > ARRASATE

Aurten ere Jose Letonari omenaldia egingo diote. Zapatuan izango da ekitaldia eta herriko kronikagilearen eta historialariaren jaiotzaren mendeurrenaren barruan egingo dute. Pertsona bera eta haren lana omenduko dituzte antolatzaileek abenduaren 6an ekitaldi xume batekin .

Arrasatear guztiei egin gura diete antolatzaileek gonbitea zapatuko ekitaldira joateko. Hitzordua haren izena daukan plazan bertan egingo dute, eguerdiko 13:00etan eta lore eskaintza egin eta hitzalditxoa emango dute. Horren ostean, Portaloi abesbatzak San Nikolasetako abestia kantatuko du.

**JOSE LETONA BEKA**

Urteurrenaren harira, Jose Letona bekaren deialdia abian da Pedro Biteriren bizitza aztertzeko. Bekaren diru kopurua izango da 10.000 eurokoa. Iraupena, berriz, gehienez izango da 12 hilekoa. Eskabideak BAZen entregatu behar dira abenduaren 12an. Epaimahai Kalifikatzailea osatuko dute beka zein proiekturi eman erabakitzeko. Besteak beste, epaimahai hori osatuko du alkateak edo alkatearen ordezko norbaitek, Jose Letonaren familiak izendatzen duen pertsonaren batek eta Eusko Ikaskuntzako ordezkariren batek.

## Emaile bila 'Bihotzaren astean'




Atcore elkartekoek, bihotz eta birika gaixoen eta transplantatuen elkartekoek informazio mahaia ipini zuten zapatu goizean Eroskin. Informazioa banatu eta emaile berriak egitea zuten asmo moduan. Hain zuzen ere, *Bihotzaren Astea* delakoa da oraingoa eta egubakoitzean bertan beteko dira 41 urte bihotzeko lehen transplantea egin zenetik.

JON BEREZIBAR



**HEZKUNTZA** > LANBIDE HEZIKETA

# Miguel Altuna: Maiatz-Simulform Europako proiektua bultzatzen

Proiektua garatuko dute Danimarka, Frantzia eta Italiako zentroekin elkarlanean. Hango ordezkariak Bergaran izan dira egunotan


Miguel Altunako ordezkariak Frantziako, Danimarkako eta Italiako ikastetxeetako ordezkariekin. GOIENKARIA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Leonardo Da Vinci Europako programaren barruan, nazioarteko topaketa egin zuten eguenean eta egubakoitzean Miguel Altuna institutuan. Programa horretako Maiatz-Simulform proiektuaren bultzatzailea da Miguel Altuna eta horixe izan da topaketa egiteko arrazoia. Proiektu horretan bazkide ditu Italiako, Danimarkako, Frantziako eta Euskal Herriko hainbat ikastetxe eta horietako ordezkariek hartu dute parte topaketan.

Leonardo Da Vinci programaren 2008ko deialdira 180 proiektu aurkeztu ziren eta epaimahaiak 31 hautatu zituen; hain justu ere, hautatuetako bat da Miguel Altunaren Maiatz-Simulform proiektua, Berrikuntzaren Transferentziako modalitatean.

Proiektu horrek bi urte iraungo ditu eta helburua da alanbrearen hotzeko estanpazioko diseinua eta elementu finitu bidezko simulazioaren gaineko hainbat proiektu berritzaileren emaitzak Lanbide Heziketara egokitzea eta transferitzea.

> ODOL EMAILEAK

## Sabin Urzelairen hitzaldia gaur eta odol ateraldiak astean

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak antolatuta, Sabin Urzelai Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko presidenteak hitzaldia egingo du gaur, astelehena, Miguel Altunan, 09:00etan eta 10:00etan.

Bihar, martitzena, 10:00etatik 13:00etara odol ateraldia egingo dute Miguel Altunan bertan; eguaztenean, hilaren 3an, Seminarioan izango da odol ateraldia, 18:30etik aurrera; eta egubakoitzean, Arcelorren, goizez.

> AUZOAK

## Angiozarko kontsultategiko lanak esleitu dituzte

Angiozar auzoko kontsultategia egokitzeko lanak egingo ditu Udalak. Mantentze eta margotze lanak, hain justu. Hala, lanok Aila Proiektuak eta Eraikuntzak SL enpresari esleitzea onartu zuen udalbatzak aho batez aurreko astelehenean egindako osoko bilkuran.

Kontsultategia egokitzeko lanon aurrekontua 11.722 eurokoa da.

**GAZTEAK** > ENTSEGU LOKALAK

# Estazioko musika entsegu lokalen erabilera araututa

Gaur, astelehena hasiko dira goiko estazioko eraikina egokitzeko lanak

**M.B.** > BERGARA
Goiko trenbidean musika taldeendako egokituko dituzten entsegu lokalak erabiltzeko araudia onartu zuen udalbatzak, aho batez, astelehenean egindako osoko bilkuran.

Hala, lokalok erabiltzeko, talde bakoitzeko kide guztiek 16 urtetik gora izan beharko dute eta gutxienez, talde bakoitzeko kideen erdia Bergarakoa izan beharko da. Horrekin batera, 30 euro ordaindu beharko dute hileko kuota gisa, eta entsegu ordutegia izango da: astelehenetik domekara, 10:00-22:00. Bestalde, lokal bakoitzak –zortzi egokituko dituzte–, gutxienez, hiru talderi emango die zerbitzu.

Goiko estazioko eraikina erabiliko duten musika taldeak Goiko Rock elkartean batu dira eta haien presidente Eugenio Pelicano –Lord Witch taldea– izango da. Hala, elkarte horrek hartuko ditu beregain: garbiketa lanen gastua eta argiarena.

Egokitze lanak gaur hasiko dira eta bukatu arte –bost bat hil–Jamen entseatuko dute taldeek.

**GAZTE BULEGOA** > LEHIAKETA

# Damian Madinabeitia gazte bulegoko egutegiaren egile

**M.B.** > BERGARA
Damian Madinabeitia 23 urteko bergararrak irabazi du Gazte Informazio Zerbitzuko egutegirako diseinuaren saria. 2009ko egutegirako diseinu lehiaketara hiru lan aurkeztu ziren, "oso kalitate onekoak, hirurak", epaimahaiaren esanetan, baina Madinabeitiarena hobetsi dute besteen aurrean. Epaimahaia osatu dute Maider Osa, kultura teknikariak; Nagore Narbaiza, Gazteria teknikariak eta Maider Sedano, Gazte informatzaileak. Irabazleak 300 euroko saria jaso du.



Goian, diseinu irabazlea. D.M.





**UDALA** > AURREKONTUAK

# 2009ko aurrekontuek %2,50 igoera dute eta gehiengoz onartu zituzten

Guztira 18.456.000 euroko aurrekontua adostu zuten; 2008an baino 450.000 euro gehiago (%2,50)

Zorpetze maila igoko dute inbertsioak mantentzearen truke



Irudian, egueneko osoko bilkurako une bat. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

EAJ-EAren, Oñati Ezkerretik koalizioaren eta Alderdi Sozialistaren aldeko eta PPren aurka botoekin, gehiengoz onartu zituzten osokoan hurrengo urterako udal aurrekontuak: 18.456.000 euro. Aurtengo ekitaldikoarekin alderatuta, 450.000 euro gehiago onartu dituzte. "Krisiak eragina izan du aurrekontuak osatzerako orduan", esan zuen alkateak, "foru funtsetik 700.000 euro gutxiago jasoko ditugu. Bestalde, lan guztiak geldi daude; hortaz, lur aprobetxamenduagatik eta lan baimenak emateko zergetatik diru gutxiago jasoko dugu. Egoera ikusita aurrekontuak egiterakoan bi aukera genituen: alde batetik, inbertsioak gutxitu; eta beste alde batetik, inbertsioak mantendu eta ondorioz, zorpetze maila igo. Azken horixe erabaki dugu". Inbertsioetarako kreditua eskatuz, udalaren zorpetze maila %7,30 izango da 2009an (2008an %5,87 da).

**EMENDAKINA**

Hain zuzen ere, aurrekontuen gain egindako emendakina kreditu eskaera egin ondoren aurkeztea erabaki zuten. "Esku artean ditugun inbertsioak estaltzeko 1.700.000 euroko kreditua eskatu genuen, baina eskatzen ziguten euriborra gehi 0,6 ordaintzea. Gehiegizkoa zela iruditu zitzaigun, eta aurrekontuetan aldaketak egitea erabaki genuen", azaldu zuen alkateak.

Emendakinak, batez ere Urrutxuko zabortegia zigilatzeko partidari eragingo dio: aurreikusita zeukatena baino 600.000 euro gutxiago erabiliko dituzte. Bestalde, Foru Aldundiak zigilatzea egiteko 300.000 euroko laguntza eman dio udalari. Hortaz, 900.000 euro gutxiagoko kreditua eskatu dute udal aurrekontuei aurre egin ahal izateko. Emendakinaren aldeko botoa eman zuten guztiek, PPko zinegotziak izan ezik.

**INBERTSIOAK**

Hurrengo urterako inbertsiorik handienakm, besteak beste, honako hauek izango dira: Urrutxuko zabortegiko zigilatzea egiteko 1.200.000 euro; San Lorentzo auzoan irisgarritasuna egiteko 200.000 euro (2008ko 500.000 euro erabiliko dituzte); Errekalde auzoa berritzeko 150.000 euro (2008tik 525.000 euro gehiago); auzoetako asfaltatzeak egiteko 80.000 euro; zerbitzuetan lan egiten duten etorkinei oinarrizko euskalduntzea emateko 10.000 euro; eta kirol instalakuntzen azterketa orokorra egiteko 30.000 euro.

Bestalde, kultura sailak eskatuta arte eszenikoen programazioa berritzeko, hobetzeko eta handitzeko programa sortzeko diru atal berezia onartu dute.

**BESTE ALDERDIEN BALORAZIOAK**

Aurrekontuen gaia bozkatu aurretik gainerako alderdiek proposamenaren gaineko balorazioak egin zituzten.

Oñati Ezkerretik koalizioko bozeramaile Jose Ruizek esan zuen aurrekontuen aldeko botoa emango zutela: "Bidegorrien proiektua abian jarri duzue. Gainera, San Lorentzo, Errekalde eta auzoetako eraberritze lanak egitea aurreikusten duzue. Horregatik guztiagatik, alde bozkatuko dugu. Dena den, gabezia batzuk ere ikusi ditugu. Gure ustez, imigrazioari buruzko diagnostikoa egiteko teknikari baten beharra dago, eta osasun zentroaren sarreran irisgarritasun lanak egitea ezinbestekoa dela uste dugu". Alderdi Popularreko zinegotzi Julio Perez de Arriluzeak kontrako botoa eman zuen. "Hil bukaerara heltzeko arazoak dituzten herritar asko daude, eta bien bitartean udalak kredituak eskatzen ditu aurrekontuak estaltzeko. Kredituak eskatu beharra ez edukitzeko estrategia landu beharko zenukete. Zuek darabilzuen filosofia ez dut ulertzen. Horregatik guztiagatik, aurka bozkatuko dut".

PSOEko zinegotzi Blanca Roncalek bat egin zuen aurrekontuekin: "Egun bizi dugun egoerarekin ezin dugu mirarirík egin. Aurrekontuarekin ados nago bi arrazoirengatik: inbertsioak mantentzea erabaki duzuelako, eta gizarte zerbitzuetarako gastuak igoko dituzuelako. Inportantea da lanpostuak sustatzea, eta dirulaguntza behartsuen artean banatzea. Bestalde, Udalbiderako onartu duzuen dirulaguntzarekin ez nago ados".

**EZKER ABERTZALEAREN IRITZIA**

Ezker Abertzaleak salatu zuenez, seigarren urtez jarraian, aurrekontuak onartu dituzte Oñatiko bigarren indar politikoari bozketan parte hartzeko aukera eman barik.

Euren irizpide nagusiak ere azaldu zituzten egueneko osoko bilkuran: Udalbiltza Garatzeko Proiektuak izeneko atala onartzea; AHT proiektuaren aurkako politika bultzatzea; etxebizitzen inguruko politika aurrerakoiak martxan jartzea; lurpeko edukiontzien eta kirol konplexu integralaren aldeko apustua; eta Santa Marina plaza eta San Martin zuhaiztia berreskuratzea. Bestalde, merkataritza txikiaren alde lan egitea beharrezkoa dela esan zuten.



MIREIA BIKUÑA

## Plazako lorategian lanetan dabiltza

Aurreko astean hasi zituzten plazako lorategiko lanak. Hainbat lan egin behar dituzte; besteak beste, kale-argiak konponduko dituzte, zorua aldatu egingo dute, eta kanalizazioa berritu egingo dute. Dagoeneko hasi dira lurra zulatzen. Lanek irauten duten artean lorategiko sarrerak moztuta egongo dira, eta kontu handiz ibiltzeko aholkua egin dute.

**EUSKARA** > ABENDUAREN 3AN

## Euskararen Eguna ospatuko dute herriko ikastetxeetan

Askotariko ekitaldiak egingo dituzte, eguaztenean, abenduaren 3an

**M.B.** > OÑATI

Errekalde Herri Eskolan, Txantxiku Ikastolan eta Elkar Hezin askotariko ekitaldiak egingo dituzte, etzi, Euskararen Eguna dela-eta.

Errekalde Herri Eskolan marrazkiak eta jolasak egingo dituzte eskolako jolaslekuan Haur Hezkuntzako ikasleekin; eta lehenengo, bigarren eta hirugarren zikloko ikasleendako herri kirolak eta rally kulturala egingo dituzte Zuazola Institutuaren aurrean.

Elkar Hezikoek manifestua irakurriko dute, eta hasiko dituzte ospakizunak: bertsoak eta abesti herrikoiak, eskolako txokoak apaindu, eta herri kirolak egingo dituzte, besteak beste.

Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleek ekitaldi herrikoia egingo dute plazan 11:00etan. Txikienek gelan egingo dituzte eskulanak. 15:00etan DBHko ikasleek jaialdia egingo dute gaztelekuan.

> KULTURA

## Toti Martinez de Lezeak liburua aurkeztuko du bihar

Toti Martinez de Lezea idazleak bere azken eleberria aurkeztuko du bihar, martitzena, Oñatin. Kultura etxeko aretoko nagusian izango da ekitaldia, 19:30ean. *La flor de Argoma* liburuan Araotzeko lau anaiaren arteko gorabeherak kontatzen ditu. Liburuak bi karlistaden garaiko Euskal Herria islatzen du. Liburuaren aurkezpenarekin batera, hitzaldia egingo du. Liburua idazteko hartutako erreferentzien gainean egingo du berba. Bukaeran galderak egiteko aukera izango dute entzuleek. Kultura sailak herritar guztiak gonbidatu gura ditu biharko ekitaldira.

**ARETXABALETA** > UDALA

# Urtea amaitu aurretik onartu gura ditu gobernuak 2009ko aurrekontuak

Datorren astean kontuen zirriborroa aurkezteko asmoa du Inaxio Garro alkateak

Kanpoko igerilekuaren gainean hausnarketa egiteko denbora dagoela aipatu du

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Asteon Ogasun batzordea deitzeko asmoa du Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok, datorren urteko aurrekontuen zirriborroa aurkezteko. Jarraian, Udalean ordezkatuta dauden taldeek euren ekarpenak egin ditzaten hamabost bat eguneko epea utzi eta urtea amaitu aurretik 2009ko kontuak onartuta egon daitezela espero du alkateak. Iragarpen horiek joan den eguenean egin zituen Garrok, *Goiena Magazinean* egin zioten elkarrizketan.

Alkateak, baina, jakin badaki aurreikuspenak betetzea ez dela samurra izango, Eusko Alkartasunak (EA) udal gobernua utzi eta Aralar hiru zinegotzirekin bakarrik geratu da-eta gobernatzeko: "Euren elkarlanarekin kontatzen genuen aurrekontuak lantzeko eta garatzeko". Horren harira azaldu zuen orain "barne hausnarketan" sartuta daudela eta datozen egunotan, egungo egoeraren gainean erabakia hartu beharko dutela. Gaineratu zuen talde guztiekin adostasunak lortu gura dituztela.



Kiroldegiak ika-mika sortu du, herritar batzuek kanpoko igerilekua nahi dutelako. Eraikin zaharra botatzen ari dira. M.A.

Udal gobernuaren haustura luze hitz egin zuen: "Ondo ez dakigun arrazoi batzuk medio, irizpide ezberdinak ikusi dituenean eta norgehiagoka maila batera iritsi garenean, errazena egin dute; buelta erdi eman eta gobernua utzi". Horren harira, EAk hartutako erabakiaren atzetik "aitzakia" baino ez dagoela uste du.

**KIROLDEGIA**

Bestalde, kiroldegi berriaren proiektuaz jardun zuen. Eraikin berriak hiru igerileku, bi gimnasio areto, askotariko erabilerako kantxa, edateko eta jateko makinak edukiko dituen bilera gela, herriko kirol taldeendako gelak eta trinketea izango ditu, besteak beste. Egitasmoa aurrera ateratzeak 14 milioi euro balioko du; horietatik, Diputazioak 1,5 eta 1,7 milioi artean jarriko dituela esan zuen.

Proiektu horrek aurreikusten ez duen kanpoko igerilekuari dagokionez, horren errentagarritasun falta eta herritarren eskakizun guztiak ezin direla abian jarri aipatu zuen. Horren harira, gaineratu zuen eskualde moduan pentsatzen hasi behar direla herritarrak.

Lehenik eta behin, proiektua onartu behar dela nabarmendu zuen. Alkatearen arabera, lanak martxoa aldean has daitezke. Proiektua ukitzea gomendagarria ez dela azpimarratu bazuen ere, kanpoko igerilekuaren gainean hausnarketa egiteko denbora dagoela esan zuen: "Egin, egin daiteke kiroldegi ondoan dagoen berdegune hartan; baina, etxez inguratuta geratuko litzateke". Futbol zelai zaharrean egingo dena zehazteke dagoela azaldu zuen.

**HERRIKO PLAZA**

Bestalde, esan zuen Herriko Plaza Gabonetarako amaituta egon beharko litzatekeela, jaiotza jarri eta Olentzerok eta Erregeek geldialditxoa egin dezaten. Lanak egiten diharduen enpresak abenduaren 15erako bukatuta egon direla berretsi duela adierazi zuen alkateak azkenik.

DATUA

**14**

**MILIOI EURO**

**Horixe da kiroldegi berria egiteko erakundeek jarri beharko duten diru kopurua. Oraindik erantzun ofizialik ez dutela jaso eta beraz, Diputazioak 1,5 eta 1,7 milioi artean jar ditzakeela dio alkateak.**

INDUSTRIA

## Coprecirekin zer egin aztertzen dabiltza

**Udala kezkatuta dago herri barruko industriekin eta bereziki, Coprecirekin. Industriaren enpresen artean, herriko "ikurrak" espazio falta duela gogora ekarri zuen. Inaxio Garro alkateak lanean dihardutela azaldu zuen. Horretarako, bi aukera aztertzen ari dira: enpresa dagoen tokian geratzea, inguruko lursail batzuk eskuratuta; edo Zubikoa izeneko eremura eramatea. Lekualdaketa egiteak koste handia duela eta hori zeinek hartu behar duen bere gain aztertzen dihardute. Horren harira, asteon bilera dute Udalak eta Jaurlaritzako SPRI sozietateko zuzendari nagusiak. Enpresa berritzeaz eta jarduera berriak erakartzeaz jardungo dute.**

**ARETXABALETA-ESKORIATZA** > EUSKARAREN EGUNA

# Udalek abizenak euskal grafiaz idazteko eta izenak aldatzeko deialdia egin dute

Aretxabaletako Euskara zerbitzuak ekimena jarriko du martxan gaur; Eskoriatzan ere egiteko asmoa dute

**M.B.** > ESKORIATZA

Aretxabaletako Euskara zerbitzuak abizenak euskal grafiaz idazteko eta izenak aldatzeko sentsibilizazio kanpaina jarriko du martxan gaur, astelehena. Euskararen Eguna dela-eta antolatu du eta barikura arte iraungo du. Eskoriatzako Euskara zerbitzuak kanpaina egiteko asmoa du, baina zehazteke dago oraindik noiz.

Kanpaina hori Euskara Biziberritzeko Planaren barruan dago. Helburua erdarazko grafiaz idatzitako euskal jatorriko abizenak euskaratzea da. Udalek hori egin ahal izateko eman beharreko pausuak azaldu dituzte.

**TRAMITEAK**

Tramitea Bake Epaitegietan egin behar dela gogorarazi dute. Abizena euskal grafiaz idazteko nortasun agiria, familia liburua eta errolda-agiria eraman behar da. Izena aldatu gura duenak, berriz, bi lekuko (Nortasun Agiria dutenak eta familiakoak ez direnak) eta hiru agiri ofizial aurkeztu beharko dira. Horietan aldatu gura duen izen hori ageri beharko da, hala nola, kiroldegiko edo Osakidetzako txartela.

Euskara zerbitzuek gomendatu dute epaitegira joan aurretik bakoitzaren abizena euskaraz nola idazten den jakitea. Zalantza dutenek Euskaltzaindiaren webgunea begira dezakete. Gainera, gogorarazi dute dokumentazioa eskura dutenean hiru hilabeteko epea dagoela Nortasun Agiria aldatzeko.

**ESKORIATZA** > ERRETIRATUAK

# Arduradun berria izango du tabernak urtarrilaren 15ean

Digna Gomezek Elisabeth Lorenzo ordezkatuko du Olazarren

**M.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak Olazar erretiratu taberna-aretoaren behin behineko esleipena egin zuen joan den eguazteneko osoko bilkuran. Digna Gomez eskoriatzarra arduratuko da urtarrilaren 15etik aurrera taberna-aretoa ustiatzeaz. Elisabeth Lorenzo ordezkatuko du. Behin betiko erabakia abenduko udalbatzarrean hartuko da. Kontratuak bi urteko iraupena izango du; hori luzatu ahal izango da guztira 20 urte bete arte. Taberna 11:00etatik 22:00etara egon beharko da zabalik.

**BETE BEHARRAK**

Taberna eta aretoa ustiatzeaz gain, instalazio horiek garbitzeaz, erretiratuen etxeko atezaintza zerbitzua emateaz eta tabernaren ondoan, eraikinaren beheko solairuan dauden komunak garbitzeaz arduratuko da. Horretaz aparte, Udalari hilero 300 euro ordaindu beharko dizkio.



Mikel Lopezek Kroaziako kostaldean ateratako *Saltua* argazkiak lehen saria eskuratu du nagusien mailan. MIKEL LOPEZ

**ANTZUOLA** > ARGAZKI LEHIAKETA

# Mikel Lopezen argazkiak saritu dituzte lehiaketan

Ekain Larreak eta Ugaitz Iturbek jaso dituzte lehen sariak beste bi mailetan

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Guztira 89 lan aurkeztu dituzte aurten argazki lehiaketara eta antolatzaileen esanetan aipatzeko kopurua da. "Hainbeste lan sekula ez dira izan lehiaketan eta parte hartzaile batzuek hiru lan aurkeztu dituzten arren iazko argazki kopurua bikoiztera iritsi gara", dio kultura teknikari Jone Larrañagak.

Epaimahaiak aukeratu ditu jadanik saridunak eta aste bukaeran lan denak Olaran etxean ikusgai izan ondoren, domekan banatu zituzten sariak.

Lehen mailan Ekain Larreak eskuratu du lehen saria *Lore artean* argazkiarekin eta bigarrena Santiago Rosalesek *Arrain ura* lanarekin. Bigarren mailan hutsik geratu da lehen saria eta bigarrena Endika Mataren *Olatu amorratua* argazkiak jaso du. Hirugarren mailako lehen saria Ugaitz Iturberen *Mari* argazkiarendako izan da eta bigarrena Dani Garciaren *Edozein egun* lanarendako. Laugarren mailan Mikel Lopezi eman diote lehen saria *Saltua* argazkiarekin eta bigarrena *Amelauna* lanarekin Juanjo Etxezarretari. Maila honetako irabazleak aipamen berezia ere jaso du *Sentimenduak* argazkiarengatik. Mikel Lopezek aurrez ere eskuratu ditu sariak argazki lehiaketan eta oraingoan ere pozik jaso du.

**MAILA OSO ONA**

Epaimahaiko kideen esanetan, maila oso ona izan da, "zoriontzeko modukoa", epaimahaiko Mari Paz Ugalderen esanetan. "Txikienen argazkietan originaltasuna izan da beharbada aipagarriena eta gainontzekoek momentu egokia harrapatzen jakin dute, eta teknika eta enkoadraketa aproposak erabiliz gainera", dio Mari Paz Ugaldek.

**ARAMAIO** > ZUIAKO KOADRILAKO LEHIAKETA

# Orri-markagailu lehiaketan parte hartzeko aukera abenduaren 5era arte dago zabalik

Lanak liburutegian, udaletxean edo Zuiako koadrilan aurkeztuko dira; lehiaketaren oinarriak koadrilako web gunean daude

**MIRIAN BITERI** > ARAMAIO

Barikuan, abenduak 5, amaituko da Zuiako Koadrilako III. Orri-markagailu Lehiaketan parte hartzeko epea. Herriko liburutegian, udal bulegoetan edo Zuiako koadrilako bulegoetan aurkeztu ahal izango dira horiek. Lehiaketa horren oinarriak *www.cuadrillazuia.com* webgunean aurki daitezke.

Orri-markagailuen gaia librea da eta mota guztietako materialak erabili daitezke. Lanak folio edo kartoi mehean aurkeztuko dira eta 4,5x21 zentimetroko tamainua izan beharko dute. Lehiakide bakoitzak, gehienez, hiru lan aurkeztu ahal izango ditu.

**LAU KATEGORIA**

Itxitako gutunazalean aurkeztuko dira, kanpoaldean 'III. Orri-markagailu lehiaketa. Zuiako koadrila' eta kategoria jarriz. Azken horren harira, aipatu beharra dago lau kategoria daudela: Alebinak, 10 urtera arte; umeak, 11 urtetik 14ra; gazteak, 15 urtetik 17ra; eta helduak, 18 urtetik aurrera. Gutunazal horretan beste gutunazal bat sartu beharko da bakoitzaren datu pertsonalekin.

Lehiaketak hiru sari ditu. Irabazleak 150 euro lortuko ditu; bigarrenak, 100; eta hirugarrenak, 50 euro. Irabazlearen izenak Zuiako koadrilako webgunean argitaratuko dira datorren urtarrilaren 12tik aurrera. Saritutako lanak koadrilarenak izango dira. Gainontzekoak, berriz, koadrilako egoitzan berreskuratu ahal izango dira apirilaren 24a baino lehen.

**LEINTZ GATZAGA** > LANDA GARAPENA

# Landagipuzkoako udalendako bigarren laguntza deia

Azpiegitura balioaniztuetan inbertsioak egiteko da dirulaguntza deia eta abenduaren 29rako aurkeztu behar dituzte proiektuak

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Landagipuzkoa 32 egitasmoan sartuta dauden udalerrietan –1.000 biztanle baino gutxiago– azpiegitura balioaniztunetan inbertsioak egiteko dirulaguntzak iragarri ditu Aldundiak. Landa Ingurunearen Garapenerako departamentuak 12.000.000 euroko aurrekontua dauka 2008-2011rako, eta hezkuntza, kultura, kirol eta osasun arloko azpiegiturak hobetzeko izango da, besteak beste. Aldundiak onartu du udalerri txikiek gabezia nabarmenak dituztela eta sarritan aurrekontuak murritzak direla ekipamenduetan inbertsioak egin ahal izateko. Horregatik egin du laguntza deialdia.

Gatzagako Udalak ur-depositua eraiki gura du Gatzagain inguruan, Arlaban gainean ur arazorik izan ez dadin. Eta depositu horretara herriko depositutik eroan ura. Dirutza handiko lana da, ordea, eta Landagipuzkoa egitasmoko dirulaguntza deira aurkeztu zuen proiektua, urrian. Abendurako egin duten deialdira berriro aurkezteko asmoa du.



Gatzagain inguruan egin gura du Udalak ur-depositua. MIRARI ALTUBE

**ELGETA** > GABONAK

# Kirol materialaren azoka eta haur parkea egongo dira

Gaur hasiko dira bigarren eskuko kirol materiala biltzen udaletxean

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Elgetako Udalak antolatuta bigarren eskuko kirol materialaren azoka egingo da herrian abenduaren 12an eta 13an.

Barikuan, hilak 12, 18:00etatik 20:30era egongo da azoka zabalik eta zapatuan, hilak 13, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Kultura Etxean egingo dute azoka.

"Herritarrek erabiltzen ez duten eta saltzeko prest dauden kirol materiala badute etxean udaletxera eraman dezakete gaurtik hilaren 11ra bitartean", adierazi du Rebeka Ubera zinegotziak. "Izenarekin eta salmenta prezioarekin eraman behar da material guztia. Salmentako dirua saltzaileak jasoko du behin azoka amaitutakoan", gaineratu du.

**GABONETAKO HAUR PARKEA**

Iazko esperientzia ona ikusita, aurten ere herriko umeen esku utziko du Udalak Gabonetako haur parkean zein jolasgune ipini erabakitzea.

Rebeka Ubera hezkuntza zinegotzia eskolara joango da umeekin batera Gabonetako parkea prestatzera. "Aurrekontu bat aurkeztuko diegu eta dauden aukeren artean eurek hartuko dute erabakia", adierazi digu Rebeka Uberak. "Iaz parte hartzea handia izan zen eta adin guztietako umeak gerturatu ziren gainera parkera. Hori bultzatu nahi dugu aurten ere", gaineratu du udal arduradunak.

# Kirola



**> FUTBOLA**
Jardunaldi borobila ibarreko preferente mailako taldeendako: hirurek irabazi **> 19**



**> XAKEA**
Alejandro Franco bigarren aldiz irabazle Arrasate Hiria xake txapelketan **> 20**



**> ELKARRIZKETA**
Alex Oiartzabal gazte eskoriatzarra, junior mailako Euskadiko Ehiza txapelduna **> 21**

**ATLETISMOA** > 31. DONOSTIAKO MARATOIA

# Ibarreko korrikalariek lan txukuna egin dute maratoian

**DEBAGOIENA**
Ibarreko korrikalarien artean Asier Urdanpilleta onena

**HOTZA ETA HAIZEA**
Hotza eta haizea izan ziren protagonista atzoko maratoian




Bergaratik Donostiako maratoira joandako korrikalari talde bat atzo, irteera baino lehen. JOXIN GARCIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Debagoieneko korrikalariek lan txukuna egin zuten atzo jokatutako Donostiako maratoian. Hotzari (4 gradu irteeran), haizeari eta euriari (azken partean) aurre eginez, gehienek lortu zuten proba amaitzea, ibilbideko 42,195 km-ak betetzea. Helmugan Lamachi marokoarra izan zen lehena, 2:15:14ko markarekin. Esan bezala, haizea izan zen protagonistetako bat eta errekorra hobetzea zaildu zuen eguraldiak atzo. Emakumezkoetan Ana Casares nafarra izan zen txapelduna, 2:37:20ko denborarekin.

**URDANPILLETA, IBARREKO LEHENA**
Atzo irteeran ziren 3.300 korrikalarien artean debagoiendar asko, eta Bergarakoak eta Oñatikoak nagusi. Ibon Espartza Izan zen Gipuzkoako txapelduna: donostiarra zazpigarren tokian iritsi zen, 2:24:04ko markarekin. Lehen debagoiendarra Asier Urdanpilleta oñatiarra izan zen. 34. postuan, 2:35:36ko denborarekin. Kilometroko batez beste 3 minutu eta 42 segundoko marka egin zuen atzoko proban. Oñatiarrei dagokienez Iñaki Pelayo (2:41:11) izan zen bigarrena eta Asier Osinaga (2:48:55) hirugarrena. Agotz Iturbe izan zen ibarreko emakume bakarretakoa: 3:47:35eko denbora egin zuen oñatiarrak Anoetako helmugan.

**BERGARATIK KORRIKALARI ASKO**
Debagoieneko herrietatik Bergarak izan zuen ordezkari gehien Donostiako maratoian. Beraien artean ere ez zen borroka falta izan: denboraldi bikaina egin duen Arkaitz Ruiz de Loizaga izan zen Bergarako onena, 56. postuan, 2:38:16ko denborarekin. Jarraian Roberto Zurro (2:41:17), Joxu Arana (2:46:30), Ritxar de Goñi (2:47:47) eta Basilio Aranburu (2:48:56) iritsi ziren.

Bergarako *Trenbidekuak* taldearekin korritzen duen eta iaz ibarreko onena izan Iker Larrea lehen antzuolarra izan genuen. Oraingoan ere marka deigarria egin zuen: 2:40:53. Xabier Lijori 13 minutuko aldea aterako ziola apustua egin zion, eta baita bete ere: 2:57:07 egin zuen Lijok.

Arrasatearrei dagokienez, 15 bat lagunek hartu zuten parte guztien denborak konfirmatzerik izan ez dugun arren: jasotako informazioaren arabera Iker Sarabia izan zen onena (2:48:12). Nabarmentzekoa Mari Fran Alonsok egindakoa: 3:42:24ko denbora egin zuen helmugan.



Edu Moreno eta Xabier Uribesalgo Anoeta inguruan, tropelaren aurrealdean. A.G.



Xabier Lijo eta ondoan Aitor Rementeria laguna bizikletan duela, animoak ematen. A.G.



Ritxar de Goñi, Bergarako laugarrena. ANDER GARITANO



Roberto Zurrok (ezkerrean) lasterketa bikaina egin zuen A.G.

**TXIRRINDULARITZA** > 2008 DENBORALDI AMAIERA

# Lagun artean ospatu zuen Markelek sasoi bukaerako festa

Markelen Lagunarteak antolatuta urteroko afaria egin zuten zapatu gauean Zubillagako Zotzen

Aurretik spinning saio jendetsuan hartu zuten parte Euskaltel-Euskadiko txirrindulariek

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

Zapatu arratsaldea. Musika topera Oñatiko Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan; pilota partidurik ez beraz; ezta kontzerturik ere. Hirurogeitik gora lagun, bakoitza bizikleta banaren gainean. Eta parez pare beste zortzi; ez edozein.

Asko dira astean bizpahiru aldiz spinning saioetara joaten direnak. Ordubete entretenitua pasa, musikak lagunduta pedalei eragin eta izerdi apur bat boteaz. Zapatuan, ordea, saio berezia izan zuten, besteak beste Oñatiko bertako, Arrasateko, Zumarragako eta Legazpiko spinning zaleek: normalean monitore bakarrarekin egiten den saioa zortzirekin egin zuten.

Eta zortzi horietatik lau Euskalteleko txirrindulariak ziren gainera: Markel Irizar, Iban Velasco, Aitor Hernandez eta Haimar Zubeldia. Monitore lanetan ibili arren ezagun zitzaien euren lekua errepidea dela: "Ez dute erritmoa ondo jarraitzen, eta postura ere ez da egokiena. Baina normala da; ez daude ohituta", zioen Markelen Lagunartearekin eta Zubikoa kiroldegiarekin batera zapatuko ekintza antolatu zuen E-goitek enpresako monitore Angel Zeziagak.

Eta kirola egin ondoren afaltzera. Zubikoan beste lagun bildu ziren Zubillagako Zotz jatetxean afaltzen, umore onean, afalosteko txiste saio eta guzti.



Hirurogeitik gora lagun bildu ziren Zubikoan, Euskaltel-Euskadiko txirrindulariekin batera spinning egiteko. JULEN IRIONDO

## Irizar zutoinean jo gabe gola sartzera, eta Zubeldia Astanara bidean

Zapatukoa moduko egunak aproposak izaten dira aldi berean atzera eta aurrera begira jartzeko. 2008 denboraldiari dagokionez, bi zati desberdintzen ditu IrizarreK: "Lehenengo zatia ona izan zen, bigarrena ez hainbeste. Dudan pena da oso gertu egon arren ezin izan dudala profesionaletako lehen garaipena lortu. Esaten dute gola sartu aurretik zutoina jotzen dela: aurten jo dut zutoina, ea datorren denboraldian sartzen dugun barrura". Paris-Nizako erlojupekoan lortutako bigarren postua zuen gogoan oñatiarrak. 2009 denboraldiko lehen zatian ere Paris-Nizan egongo da, "oraingoan Samuel Sanchezekin irabazteko asmoz", eta baita harbideko klasikoetan ere.

Haimar Zubeldiak, ostera, hamaika urte ondoren azken egunak ditu Euskalteleko mailotarekin. Datorren denboraldian Astana taldearekin ibiliko da: "Ilusio handia daukat. Euskaltelek asko eman dit niri, eta uste dut nik ere egin dudala nire ekarpena. Orain talde handi batera noa. Han beste batzuentzako lan egin beharko dut". Besteak beste, Armstrong eta Contadorren taldekide izango da Zubeldia, eta hauxe dio talde-buru nagusiari buruz galdetuta: "Contador etorkizuna da; Armstrong izandakoa. Berriz ere demostratu egin behar du goian egon daitekeela".



Kutxa Aurreikuspen Planak




# Gaurdanik ziurta ezazu.

Etorkizuna ezin daiteke bat-batean egin, egunetik egunera eraiki behar da. Horregatik, zure etorkizuna baldintza ekonomiko onenetakoa izan dadin ziurtatzeko, **Kutxaren Aurreikuspen-planak** dituzu aukeretan bikainenak. Gainera, gaur, **Aurreikuspen-plan Bermatu berria** aurkeztu nahi dizugu. Kontrata ezazu berehala, eta ziurtatu ahalik eta errentagarritasunik handiena.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa


Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
ECOEMBES
NIREKIN BATERA HITZEMAN:
HORIRA EZ BEIRARIK EZ KARTOIRIK
EDUKIONTZI HORIA PLASTIKO, LATA ETA BRIKENTZAT DA SOILIK.
Zure hondakinak ongi bereizten dituzula eta dagokien edukiontzietara botatzen dituzula ziurta zaitez.
Bestela, birziklatze prozesua hautsiko duzu. Ingurugiroaz ardura zaitez. Etorkizunaz ardura zaitez.
ondo birziklatzen ez baduzu,
denon konpromisoa hautsiko duzu
AÑANAKO KOADRILA
CUADRILLA DE AÑANA
CUADRILLA DE LAGUARDIA
RIOJA ALAVESA
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO
KUADRILLA
CUADRILLA DE CAMPEZO-
MONTAÑA ALAVESA
KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEKO
aguraingo
eskualdea
cuadrilla de
salvatierra
AYUNTAMIENTO DE
ARRAZUA-UBARRUNDIA
ARRAZUA-UBARRUNDIA´´ko
UDALA
CONSORCIO ESTRIBACIONES
DEL
GORBEA
GORBEAKO INGURUEN
PARTZUERGOA

**PREFERENTEA** > AZKEN SAILKATUAREN BISITA IBARRARA

# Bi penaltiri esker garaipena etxean, ondo jokatu ez arren

Azkoitiarrek atzean itxaron zuten, eta etxekoek ez zuten zulorik aurkitu

ARETXABALETA
**2-0**
ANAITASUNA

**Aretxabaleta** > Elgarresta, Raul, Garai (Tena, 83. min.), Ruben, Astola, Gotzon (Iturbe, 75. min.), Imanol (Uribetxebarria, 87. min.), Igartua (Alain, 88. min.), Eriko, Ivan Lopez (Oinatz, 76. min.) eta Espinosa.

**Anaitasuna** > Aranbarri, Azkoiti, Balentziaga, Landa, Rocha, Zabala, Etxeberria, Otano (Aranbarri, 76. min.), Aranbarri, Nuñez (Artetxe, 76. min.) eta Korta.

**Golak** > 1-0: Ivan Lopez (53. min.). 2-0: Imanol Rodriguez (85. min).



Ivan Lopez Aretxabaletako jokalaria, lehenengo gola ekarri zuen penaltia jaurtitzera. JOSETXO ARANTZABAL

**JULEN IRIONDO** > ARETXABALETA

Etxetik kanpo behintzat puntu bat ziurtatzera ateratakoen eta euren zaleen aurrean jokatuta irabazi nahi bai baina nola oso garbi ikusten ez zuten taldeen artekoa izan zen domekako lehia.

Aurreneko aukera agudo izan zuen Aretxabaletak, bosgarren minuturako. Espinosaren jaurtiketa indartsua zutoinera joan zen atezainak ukitu eta gero.

Handik aurrera, ia ordu erdiz, ez joko ez aukera. Anaitasuna atzean ondo jarrita, eta Aretxabaleta zulorik aurkitu ezin eta baloi luzeak bidali eta galtzen.

Lehen zatia amaitu aurretik hiru aukera on izan zituzten Espinosa eta Erikoren artean, baina golik ez. Bigarren zatiaren hasieran eta amaieran izandako penaltii banarekin irabazi zuen Aretxabaletak. Tartean, langara bidalitako aukera bat baino ez zuen izan Anaitasunak.

**PREFERENTEA** > AZKENEAN ETXEAN IRABAZI

## Luzapenean berdinketa, luzapenean garaipena

MONDRA
**2-1**
ZUMAIAKO

**J.I.** > ARRASATE

Bi minutuko kontua izan zen: garaipena poltsikoan ikustetik berdinketara; eta kolpe gogor horretatik garaipena ekarri zuen zorioneko golera; eta dena luzapenean.

Neurketa osoan izan zen nagusi Mondra. Aukera asko egin zituen, eta ia bat ere ez Zumaiakok. Julen Herizek egin zuen lehenengo gola 25. minutuan, eta Iker Cabrerak bigarrena, kontrakoa jaso eta zelai erditik atera bezain laster, 95.ean. Zoratzeko amaiera.



Zumaiako atezaina, arrasatearren erremate bat geratzen. IMANOL SORIANO

**PREFERENTEA** > EZ ZEN JOKO ONIK IZAN

## Golak eta irabazi izana, partiduko gauza onenak

ALOÑA MENDI
**3-1**
AMAIKAK BAT

**J.I.** > OÑATI

Ez zen neurketa ona izan Azkoagaingoa. Gaitzerdi, golak ikusteko aukera behintzat izan zuten zaleek, gehienak etxekoenak gainera, eta denak lehenengo zatian.

Robertok eta Ugartek egin zituzten etxekoen lehenengo biak, biek buruz atzelariei aurrea ondo hartuta. Tartean, penaltiz sartu zuten debatarrek banakoa. Aloñaren hirugarrena ere Robertok egin zuen, buruz buruko jokaldian atezaina gaindituta.



Roberto eta Ugarte golegileak, goletako bat ospatzen JOSETXO ARANTZABAL

### emaitzak eta sailkapenak

**PREFERENTE MAILA**

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Tolosa** | **25** | 12 |
| 2. **Real Union** | **22** | 12 |
| 3. **Pasaia** | **21** | 12 |
| 4. **Aretxabaleta** | **21** | 12 |
| 5. **Hondarribia** | **20** | 12 |
| 6. **Idiazabal** | **20** | 12 |
| 7. **Trintxerpe** | **19** | 12 |
| 8. **Aloña Mendi** | **19** | 12 |
| 9. **Berio** | **18** | 12 |
| 10. **Mondra** | **18** | 12 |
| 11. **Hernani** | **18** | 12 |
| 12. **Aurrera.** | **15** | 12 |
| 13. **Zumaiako** | **14** | 12 |
| 14. **Euskalduna** | **13** | 12 |
| 15. **Astig. Mundarro** | **9** | 12 |
| 16. **EHU Vasconia** | **9** | 12 |
| 17. **Amaikak Bat** | **6** | 12 |
| 18. **Anaitasuna** | **4** | 12 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| EHU Vasconia-Real Union | 0-2 |
| Pasaia-Hondarribia | 0-0 |
| Berio-Aurrera | 1-1 |
| Aloña Mendi-Amaikak Bat | 3-1 |
| Mondra-Zumaiako | 2-1 |
| Tolosa-Hernani | 4-0 |
| Mundarro-Trintxerpe | 0-2 |
| Idiazabal-Euskalduna | 1-1 |
| Aretxabaleta-Anaitasuna | 2-0 |

**Hurrengoak**

Anaitasuna-Real Union
Hondarribia-EHU Vasconia
Aurrera-Pasaia
Amaikak Bat-Berio
Zumaiako-Aloña Mendi
Hernani-Mondra
Trintxerpe-Tolosa
Euskalduna-Mundarro
Aretxabaleta-Idiazabal

**BESTELAKOAK**

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO ERREGIONALA** | |
| BTLS-Aretxabaleta | 1-3 |
| Antzuola-Mutriku | 1-1 |
| Eibartarrak-Mondra | 1-1 |
| Anaitasuna-Bergara | 0-1 |
| **BIGARREN ERREGIONALA** | |
| Eibartarrak-Bergara | 1-4 |
| **GAZTE MAILAKO EUSKAL LIGA** | |
| El Pilar-Aretxabaleta | 1-7 |
| Alaves B-Bergara | 2-1 |
| **OHOREZKO GAZTEAK** | |
| Vasconia-Aloña Mendi | 3-2 |
| **LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK** | |
| Bergara-Mondra | 0-6 |
| Aretxabaleta B-Elgoibar | 3-3 |
| **OHOREZKO KADETEAK** | |
| Bergara-Billabona | 2-1 |
| Aretxabaleta Ariz.-Ordizia | 2-1 |
| Eibar B-Aloña Mendi | 2-2 |
| Ostadar-Arrasate | 5-0 |
| **LEHENENGO MAILAKO KADETEAK** | |
| Arizmendi-Aloña Mendi | 3-2 |
| Urki-Aretxabaleta | 1-1 |
| **KADETE TXIKI** | |
| Arrasate-Real Union | 2-3 |
| **OHOREZKO INFANTILAK** | |
| Hondarribia-Bergara | 4-0 |
| Urola-Aretxabaleta | 2-4 |
| **LEHENENGO MAILAKO INFANTILAK** | |
| Mutriku-Arrasate | 1-3 |
| Amaikak Bat-Aloña Mendi | 5-2 |
| **INFANTIL TXIKI** | |
| Arrasate-Beasain | 0-0 |
| Aretxabaleta Arizmendi-Urola | 4-2 |
| Elgoibar-Bergara | 0-0 |
| **EMAKUMEZKOEN LIGA** | |
| Elgoibar-Arizmendi | 5-0 |
| Mondra-Aloña Mendi | 2-0 |
| Arizmendi B-Soraluce | 1-3 |
| **EMAKUMEZKOEN F-8 KADETEAK** | |
| Aloña Mendi-Zestoa | 4-2 |

**XAKEA** > ARRASATE HIRIA TORNEOA

# Alejandro Franco bigarren aldiz txapeldun xake torneoan

Cristobal Limeresek Iñigo Argandoñaren aurkako partida galdu zuen azken unean akats handi bat eginda eta horrek galarazi zion txapelketa

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE
Sei egubakoitzetan jokatu dira Arrasate Hiria xake torneoko partidak sistema suitzarra erabiliz; hau da, hasieran rankingaren arabera bikoteak osatu eta irabazleek elkarren aurka jokatzen dute; hortaz, zenbat eta partida gehiago irabazi orduan eta aurkari gogorragoak izaten dira elkarren kontra.

Egubakoitzean jokatu zen txapelketako azken saioa eta lehen xake taulan zegoen gakoa. Cristobal Limeres gernikarra, Xakeko Federazio Internazionaleko maisua, zen lehena lau punturekin. Iñigo Argandoña nazioarteko maisuaren aurka zeukan norgehiagoka eta Limerezek partida ia irabazita zuen, gutxienez berdinketa ziurtatua, baina azken unean akats handi bat egin zuen urduritasunaren eta pentsatzeko denbora urriaren eraginez, eta partida ez ezik txapelketa ere galdu egin zuen

**GUREKO LAU LEHEN HAMARRETAN**
Bigarren taulan Alejandro Franco madrildarrak Yeray Galtzagorri irabazi zion eta guztira bost puntu eskuratu txapelketa irabaziz, bere puntuaketa ez baitzuen inork berdindu.



Alejandro Franco madrildarrak (eskuman) bost punturekin lortu zuen 2006an bezala torneoa irabaztea. GOIENKARIA

Torneoko bigarren izan zen Limeres gernikarra, hirugarren Argandoña donostiarra eta laugarren Carlos Naba bilbotarra.

Txapelketan lehenengo hamarrek eskuratu dute saria eta bost debagoiendar izan ziren horien artean: Fran Miguel seigarren, Andoni Miguel zazpigarren eta Chema Hernando zortzigarren, guztiak lau punturekin; eta bederatzigarren Josu Tornay hiru puntu eta erdirekin.

## Orain arteko txapelketarik onena aurtengoa

Josu Tornay Arrasateko xake jokalariaren esanetan zortzi edizioetatik aurtengo txapelketa izan da Arrasate Hiria Torneoko onena jokoari, xake mailari eta emozioari dagokionean. "Beste urte batzuetan beharbada izen handiagoko partaideak izan dira, baina onena aurtengoa, dudarik gabe. Gainera oihartzun handia izan du nazioartean eta partida oso onak ikusteko aukera egon da. Azken jardunaldira arte zortzi jokalarik zituzten irabazteko aukerak", esan digu. Gaineratu digu, Alejandro Franco, aurtengo irabazlea, izan dela orain arte torneoan bi lehenengo sari irabazi dituen bakarra. 2006an txapeldun izan zen eta iaz bigarren.



GOIENKARIA

## Bergarako karatekak hirugarren Logroñon

Zapatuan jokatu zen Logroñon autonomien arteko karate txapelketa. Nafarroako, Aragoiko, Errioxako eta Euskadiko karatekek neurtu zituzten indarrak elkarren aurka. Euskadiko taldean ziren Bergarako Shotokan elkarteko bi karateka: Markel Lopez eta Joane Amasorrain. Euskadiko taldeak hirugarren postua lortu zuen txapelketa horretan. Aurrez, Euskadiko txapelketan jardun zuten biek eta Markel Lopez txapeldunorde izan zen eta han ere hirugarren postua lortu zuen Joane Amasorrainek. Bestalde, Gasteizen jokatuko da aurten Espainiako karate txapelketa eta Bergarako karatekak zain daude hautatzaileak han parte hartzeko aukerarik ematen dien jakiteko.

**SASKIBALOIA** > TEKNIFIKAZIO SAIOA

# Teknika eta taktika landu zituzten Bergarako neska-mutikoek Labegaraietan

Saskibaloi taldeko entrenatzaileen laguntzaz ariketak egin ostean partiduak jokatu zituzte hiru taldetan banatuta

**I. A.** > BERGARA
Bergarako saskibaloi taldearen ekimenez eta Udalaren laguntzaz teknifikazio saioa antolatu zuten domekarako multikiroletako osagarri moduan.

Hotzari aurre egin eta jolasean berotzeko aukera izan zuten 1997an eta 1998an jaiotako neska-mutikoek Labegaraietako kiroldegian. Saskibaloi taldeko David Urbinaren esanetan, "gaztetxo gehiago etortzea espero genuen, iaz 70 lagun izan genituelako, baina etorri diren 26ekin ondo jardun dugu lanean, eta eurek ere ondo pasatu dutelakoan gaude".

**HIRU KANTXATAN**
Hiru taldetan banatu zituzten gaztetxoak eta hiru kantxetan ibili ziren txandaka. Kantxa bakoitzean entrenatzaile bana zuten zain eta hamar minutuko hiru saiotan ariketa teknikoak egin zituzten euren laguntzaz. Ondoren, bakarkako teknika lanak utzi, eta taktika lantzeko ariketetan jardun zuten euren taldekideekin.

Azkenik, kantxa bakoitzean partidu bana jokatu zuten. "Orduan pasatu dute ondoren, azken batean hori baita gehien gustatzen zaiena, partidua jokatzea", esan zigun David Urbinak.




Partiduak amaituta teknifikazio saioko partaide denak elkartu ziren. I. AGIRREAZALDEGI

Alex Oiartzabal > Ehiztaria

# "Txakurraren lana da inportanteena, berak jaso behar du pieza lurretik"

MIREIA BIKUÑA > ESKORIATZA

**Alex Oiartzabalek (Eskoriatza, 1990) junior mailako Euskadiko Ehiza txapelketa irabazi zuen Zanbranan (Araba) *Lai* txakurraren laguntzarekin. Aitonak oparitutako eskopeta erabiltzen du oraindik. Txapelketari buruz, txakurrak duen garrantziaz eta dituen beste zaletasunei buruz egin dugu berba harekin.**

**Azaroaren 16an jokatu zenuten Euskadiko Ehiza txapelketa Zanbranan. Ehiztari gutxi lehiatu arren, zu izan zinen txapelduna.**

Bakarrik lau ehiztari lehiatu ginen junior mailan: hiru gipuzkoarrak eta bat bizkaitarra. Gipuzkoarrok elkar ezagutzen genuen, eta beldur nintzen bizkaitarrak nolako maila emango zuen.

Baina, azkenean hiru eper harrapatuta nik jantzi nuen txapela. Oso pozik nago.

**Nolakoak dira halako txapelketak?**

Denbora muga ematen dute, eta ahalik eta pieza gehien harrapatu behar dira. Bukaeran, pieza kopuruan berdinketa badago, bakoitzari puntuaketa ezberdina ematen diote. Zanbranan jokatutako txapelketan eperrak, oilagorrak eta faisiak harrapatzeko aukera genuen.

**Nola heldu zinen Euskadiko txapelketara?**

Lehenengo Eskoriatzako ehiza elkarteak antolatutako txapelketa irabazi nuen. Ondoren, Gipuzkoako txapelketan parte hartu nuen, eta txapeldun izateagatik Euskadi txapelketarako txartela eskuratu nuen. Lehen aldia da Euskadiko txapelketa jokatzen dudala.

**Halako txapelketa irabazteko zorte apur bat behar da?**

Bai. Tiratzaile ona izanda ere, egun ona izatea beharrezkoa da irabazteko. Dena den, azpimarratuko nuke txakurrak egiten duen lana. Berak jaso behar du pieza lurretik. Hori da garrantzitsuena. Noski, gero tiroa egiterakoan trebe izatea ere inportantea da.

Nik txakur ona daukat, eta oraingoz ondo moldatzen gara elkarrekin. Setter ingelesa da, eta gustura ibiltzen gara elkarrekin.

**Nondik datorkizu ehizarako zaletasuna?**

Etxean beti egon dira ehiztariak. Aitona eta aita beti ezagutu ditut eskopetarekin; hortaz... Lehen eskopeta aitonak oparitu zidan ehizan hasi nintzenean, eta oraindik horrekin dihardut. Oraingoz, ez daukat eskopeta aldatzeko asmorik.

**Ehizara norekin joaten zara?**

Jeneralean aitarekin ibiltzen naiz, lagunek beste zaletasun batzuk dituzte-eta.

**Non ibiltzen zarete?**

Aitak eta biok ehiza-barrutia daukagu. Hortaz, aldika joaten gara ehizan egitera. Pieza kopuru zehatza ehizatu dezakegu han, baina gustura ibiltzen gara. Beste batzuetan, Debagoieneko mendietan ibiltzen gara.

**Zeintzuk dira harrapatzeko pieza zailenak?**

Nire ustez, oilagorrak. Baina, lehen esan dudan moduan, txapelketetan eta ehizan zortea izatea oso inportantea da. Ni eperretan oso gustura ibiltzen naiz.

**Usoak harrapatzeko garaia bukatu da. Zuk urte osoan egiten duzu ehizan?**

Ahal dudan guztietan joaten naiz. Aurtengo uso garaia nahiko eskasa izan da. Hemendik aurrera ehiza ezberdinak egiteko garai ezberdinak egoten dira. Ni urtarrilera arte edo ibiliko naiz eskopetarekin.

**Plater tiroketa txapelketetan ibiltzen zara?**

Ez. Jeneralean ehizan ibiltzen diren gehienak plater tiroketan ibiltzen dira, baina nik ez dut sekula halakoetan parte hartu, eta egia esan, ez zait batere deigarria egiten.

**Beste zaletasunik baduzu ehizarekin partekatzeko?**

Pilotan ibiltzen naiz Eskoriatzako taldearekin. Ahal dudan txapelketa guztietan jokatzen dut. Hortaz, eskopeta gerrikoarekin partekatzen dut.

Momentuz, bi zaletasunak aldi batera egiteko arazorik ez dut. Pilota partiduak ditudanean, ezin naiz ehizara joan.

**"Edozein txapelketa irabazteko zorte apur bat izatea ezinbestekoa izaten da"**

**"Aitonak oparitutako eskopetarekin irabazi nuen Zanbranako txapelketa"**

**"Ibarreko mendietan ibiltzen naiz aitarekin, eta aldika ehiza-barrutira joaten gara"**

**"Pilotan ere ibiltzen naiz; oraingoz eskopeta eta gerrikoa partekatzen ditut"**



Alex Oiartzabal Euskadiko txapelketan irabazitako txapelarekin. MIREIA BIKUÑA

## Debarroko pilota txapelketa irabazi zuen 2006. urtean

2006. urteko uztailaren 9an jokatu ziren Debarroko pilota txapelketak Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan. Kadete mailan Eskoriatzako Alex Oiartzabalek eta Xabier Agirianok, Arrasateko Ander Zubizarreta eta Ibai Bolinagaren aurka jokatu zuten. Eskoriatzako bikoteak 22-15 menderatu zuen Arrasatekoa. Partidua aurreko koadroetan menderatu zuten eskoriatzarrek.

Gazte mailan Aitor Mendizabal eta Andoni Azkaratek jantzi zuten txapela; eta senior mailan, Ibon eta Unai Errasti anaiek.



Alex Oiartzabal eta Xabier Agiriano. ARTXIBOA

ARRASATE

# Kirol jarduera ezberdinetan jardun zuten zapatuan Arrasaten

**AUKERA ZABALA** Errugbian, paletan, pilotan, areto futbolean, futbolean eta eskubaloian jokatu zuten

**HOTZA** Goizeko haize freskoari aurre egin nahian, aztetxoak etengabe beroketak egiten jardun zuten Mojategin

**ATSEDENA** Hurrengo zapatuan atsedena edukiko dute oraingoan galdutako indarrak berreskuratzeko

**AMAIA TXINTXURRETA**> ARRASATE

Goizeko haize freskoari aurre egiteko asmotan, 9:30ean Almen B eta San Martin H.E. alde batetik, eta Kurtzebarri 5 eta Gazteluondo bestetik, Mojategin bildu ziren. Zapaturo bezala, beraien indarrak neurtu zituzten, kasu honetan, futbol zortziko partiduetan. Baina praka eta kamiseta luzeekin agertu ziren gaztetxoak. Bateren bati ere ikusi genuen eskularru eta guzti, eta berokiak ere ez ziren falta izan.

Lehenengo partidua, beraz, Almen B eta San Martin H.E. taldeek jokatu zuten eta markagailuan 1-1eko berdinketarekin amaitu zuten. Gazteluondok zorte gehiago izan zuen eta Kurtzebarri 5 taldea garaitu zuen.

**ASKOTARIKO EKINTZAK**

Ekintza eta partidu mordo bat antolatu ziren zapaturako Arrasaten. Alde batetik, bigarren mailakoek errugbi topaketa eduki zuten Mojategi eremuan. Bestetik, 3. eta 4. mailako neskak paleta saioa izan zuten Musakolako frontoian. Adin horietako mutikoek, ostera, pilota partiduak jokatu zituzten Uarkapeko frontoian. 6. mailako neskek, bestalde, areto futboleam jokatu zuten Iturripeko kantxan, eta mutilak futbol zortziko partiduak eduki zituzten Mojategin. Infatilen mailan ere egon zen partidu bat, eta azkenik, eskubaloi taldeek ere norgehiagoka izan zuten.Hurrengo astean, baina, atsedena edukiko dute beraien indarrak berreskuratzeko. Atsedenerako tartea.



A.T.

**Gazteluondo 5B.** Goian: Luis Jimenez, Oier Arsuaga, Unai Zugasti, Beñat Badiola, Antxon Barrutiabengoa eta Ander Heriz. Behean: Jon Ander Arizaga, Ander Gonzalez, Mikel Etxegia, Ugutz Tristan de la Torre eta Aratz Arsuaga.



A.T.

**Almen A.** Zutik, Zuhaitz Ezkurra, Josu Egia, Ibon Pablo, Aitor Garcia eta Jon Iregi; makurtuta, Mikel Irazola, Ander Molinero, Julen Galarza, Julen Arriola eta Endika Landaluz taldekideak, beroki eta guzti.



A.T.

**Arrasate H.E.** Hauek dira taldekideak: Ander Gonzalez, David Mateos, Cristian Calvo, Jokin Lasa, Gaizka Barrena, Mikel Gallagher, Txomin Valle, Daniel Martins eta Eneko Santamaria.



A.T.

**San Viator 6A.** Ezkerretik eskumara: Oier Sasiain, Aitor Uribetxeberria, Oier Arregi eta Julen Gartzia. Behean, Julen Onandia, Josu Diaz, Alai Luna, Julen Cucalon eta Unai Salaberri.

## BAKARKAKO ALA TALDEKO KIROLAK DITUZU NAHIAGO?



**Ugutz Tristan de la Torre**
Gazteluondo 5B

"Orokorrean bakarkako kirolak baino nahiago ditut taldekoak", aitortu digu Ugutzek. "Nik bakarrik egin behar ditudan kiroletan batzuetan aspertu egiten naiz. Aldiz, taldekideak alboan ditudanean, gehiago dibertitzen naiz".



**Julen Arriola eta Endika Landaluze**
Almen 5A

"Taldeko kiroletan laguntza gehiago edukitzen dugu eta errazagoa da jolasteko" azaldu digu Julenek. Endikak hau gaineratu digu: "Atletismoa edo igeriketa bakarkakoak izan arren, gustatzen zaizkit".



**Jokin Lasa eta Gaizka Barrena**
Arrasate H.E.

Bikoteak nahiago du taldean jolastea eta hau azaldu digute: "Denon artean jolasten hobeto pasatzen dugu eta ez badugu irabazten, guztiok galtzen dugu, beraz, ez gara hain gaizki sentitzen galduz gero...".



**Ander Lopez**
Almen 5B

"Bi modutakoak atsegin ditut: Bakarkakoetan zure ahalegina erakusten duzu, eta horrela zu nolakoa zaren ikusten da. Taldekoetan, norbaitek gaizki jolasten badu, besteen laguntzaz irabazteko aukerak daude".



**Iker Lopez**
Almen 5B

"Gurago ditut taldekoak, lagun artean nagoelako eta guztiok batera jokatzen dugulako". Baina bakarkakoak ere gustatzen zaizkio: "Ilusio gehiago edukitzen dut bat baten kontra egitean, egindakoa nire ahalegina izaten baita".



**> PAILAZOAK**
Pirritx, Porrotx, Marimotots eta piratekin eromena zabaldu zen Eskoriatzan > 27



**> FILM LABURRAK**
Txolarte elkarteren 'Tariro-Tariro' lanak eskuratu du Bergarako Film Laburren lehen saria > 27



**> DANTZA**
Euskal Dantza erakustaldia Bergaran herriko eta Oreretako taldeen eskutik > 31

# Alderantziz hasita baina aldrebeskeria gutxirekin

Aldrebeskeria agian ez baina eromena franko izan genuen laugarren kontzertu sortan Normanekoekin batez ere

Foxy Boxxikoak berehala arduratu ziren euren gaztetasuna ahaztarazteaz, rocka aldarrikatuz

Bakarlariak, bakarrik irtetearekin konforme ez eta, ia orkestra igo zuen agertokira

**JON BEREZIBAR** > ELGETA

Gaua alderantziz hasi zen egubakoitzean. Bakarlariak ekin beharrean taldeak ekin zion eta ostean bakarlaria igo zen, baina gutxi falta izan zitzaion Big Band bat agertokira eroateko.

Hasi baina, gaztetxoenak hasi ziren eurak jaio baino hamarkadatxo batzuk lehenagoko musika eginez gainera. Denboraz tarte handia egonda ere, frogatu zuten funk ukituko 70eko rocka ez zaiela batere arrotz. Foxy Boxxikoak rock-and-rollaren bandera harro haizatzeko gogo sendoarekin irten ziren eta, euren kasuan, adina txikikeria huts moduan utzi zuten.

Esan moduan, gaua alderantziz hasi zen egubakoitzean baina aldrebestu barik. Bakarlariarekin – zelanbait deitzearren – herriko jaietako banda heldu zen. Jendea animatu, gerria mugitzen hasi... Elgetara igotako aretxabaletar tropak giro ederra ipini zuen eta Igor San Juan bere saltsan gustura. Taldearekin, abestiei galazko itxura eman ahal izan zien eta tarte instrumental oparoak egin zituzten, okasioa aprobetxatuta. Agian larregi, bakarlaria ahazteraino.

**POPETIK, ETIKETAK HAUSTERA**

Aretxabaletarraren pop baikor eta konplexu gutxikoaz berehala ahaztarazteaz Norman taldekoak arduratu ziren muturreko proposamen batekin. Abeslariak eromena ekarri zuen, bat-bateko erritmo aldaketek sorgortu gintuzten eta gitarra eroek sena galarazi. Basatasun nahikoa eta gailentzeko aukera asko dauzkate. Etiketekin hesitzeko estilo zaila daukate eta oraingo Danbakan hori ezinbesteko baldintza bihurtzen dabilela ematen du, teknikoki aitzakia gutxiko taldeak entzuten gabiltza-eta.

Gauak Normanekoekin goia jo zuela zirudien eta hein handi batean hala izan zen ze azkeneko taldeak nabarmentzeko bikain jo beharra du ikusleen nekeari aurre egiteko. Hilbeteanekoek ez zuten guztiz txarto egin baina azken taldeari gutxiago barkatu ohi zaizkio akatsak. Eragozpenak eragozpen, euren musikaren defentsa sendoa egin zuten saio guztiari tinko eutsiz. Ezin uka gogoz jardun zutenik eta abesti on sorta ere badaukatenik. Horiek izan dira indarguneak eta zentzu horretan huts gutxi.

EZTABAIDA

## Bakarrik ala bakarka?

Polemika txikia piztu ohi da beti bakarlariaren kontura. Bakarlari batzuk ditugu, xumetasun eta ausardia guztiarekin, gitarra batekin besterik igotzen ez direnak. Horren beste muturrean leudeke oholtzara ahalik eta musikari gehien igotzen saiatzen diren bakarlariak. Sarri hauek gainontzeko taldeek baino kide gehiago izaten dituzte agertokian. Luxua da talde osoarekin jotzea baina luxu garestia. Orain arte taldearekin igotako bakarlariak garesti ordaindu dute hori, taldeak irentsi egin dituelako. Hurrengo saioetan ikusi behar.



**FOXY BOXXI** Gaztetxoenak izanda ere beteranoagoen aurrean makurtzeko asmorik ez dute arrasatearrek. JOSETXO ARANTZABAL



## FOXY BOXXI | Arrasate

**Adituak esana** > Ander Barriuso (teknikaria)
"Freskoa iruditu zait egiten duten rock-and-rolla, barietate handikoa eta asko gustatu zait noizean behin eman dioten funky ukitu hori. Indarra ere bazeukan eta baita pop ukituren bat edo beste. Hain zuzen, ukitu txiki horiek kontuan hartuta, asko gustatu zait. Jende gaztea izanda ere maila tekniko ona erakutsi dute eta uste dut majo egin dutela; oso ondo".

**Ikusleek esana** > Leire Cortes
"Abeslariarekin geratzen naiz, neska indartsu batek asko betetzen du agertokia. Taldea ere bikain. Gazteak dira eta ondo jotzen dute; inbidia eman didate hain ondo egin dutela ikusita".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Estilo aldetik berezi ikusi ditut eta eskertzekoa den saiakera da hori. Ez da geratu, gainera, saiakera hutsean, gazteak izan arren baleko maila teknikoa daukate eta taldearen presentzia ere asko gustatu zait; kide guztiena."

**Taldekideek esana**
"Amaitutakoan motza izan dela iruditu zaigu baina pentsatzen dugu ondo egon dela. Akatsen bat edo beste egin dugu baina ezer ere ez potoloa; gu bakarrik konturatzekoa. Gustura jo dugu . Maila altua dago aurten eta sailkatzea gaitza izango da. Rock-and-roll talde asko egonda ere, gurea desberdina dela iruditzen zaigu".



## IGOR SAN JUAN | Aretxabaleta

**Adituak esana** > Ander Barriuso (teknikaria)
"Bakarlaria, ikusten denez, talde handi baten geratu da... Kantu instrumentalak ere jo dituzte. Bera, bakarlaria, une batzuetan guztiz zentratzeke ikusi dut. Bestela, taldearena kontuan hartuta – piano, saxofoi... – oso osatua entzun da. Pop baikor mota horretan sartuko nuke eta ondo egin dutela iruditu zait, oso 90 hamarkadakoa agian".

**Ikusleek esana** > Leire Cortes
"Gustatu zait nahiz eta apur bat *patxanga* izan den. Musika atsegina da, popa besterik gabe, zuzenean sartzen dena. Gainera instrumentu mordo bat zeuzkan eta asko lagundu du horrek".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Larregikoa iruditu zait taldearena emaitzari orokorrean begiratuta. Pop abesti baikor politak dauzka eta luxuzko taldea. Hortaz buelta edo ezustekoren bat ere espero zitekeen baina sorpresarik ez da egon. Atsegina izan da".

**Taldekideek esana**
"Gustura nago; aurreko aldiaren nahiko antzerakoa izan dela uste dut. Modu baten geneukan prestatuta eta beste modu baten atera da, baina ondo, berdin zait niri hori. Guztiz lotu barik genekarren, baina askotariko errepertorioa zenez, ondo atera da. Inpresio orokorra baina, uste dut, gustura geratzeko izan dela".



## NORMAN | Eibar

**Adituak esana** > Ander Barriuso (teknikaria)
"Talde kuriosoa hauxe ere. Nahiko fusio interesgarria da egiten dutena: batetik rock-and-rolla baina bestetik modernoagoak diren beste estilo batzuk uztartuaz. Ahotsa ere aipatzekoa da erregistro zabalduna da-eta. Gitarra fresko eta biziak ere nabarmenduko nituzke eta baxu zein bateriarekin eransten dioten oinarri sendoa. 'Berritzailea' hitza erabiliko nuke".

**Ikusleek esana** > Leire Cortes
"Eromena izan da eta gustatu zait bai musikaren aldetik baina baita ere ikuskizunaren aldetik. Estilo zakarra izan daiteke baina taldea oso ona da eta pertsonalitatea daukate".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Estilo nahasketa oso ona daukate eta gainontzeko taldeen klasikotasunaren aurrean oso freskagarria izan da hauen kontzertua. Abeslaria ikaragarria da, gitarrarekin sekulako indarra lortzen dute eta abestien oinarria ere oso sendoa da."

**Taldekideek esana**
"Gure aldetik eman beharrekoa eman dugu, beraz gustura. Gero kanpotik nola hartu den beste kontu bat litzateke. Daukagun guztia atera dugu eta hori nabaritu dela esan genezake. Ez daukagu erdizpurdiz egin dugunaren inpresioa . Horrez gain, aurreko asteetan kontzertuak izan ditugu eta nahiko bero gentozen".



## HILBETE | Durango

**Adituak esana** > Ander Barriuso (teknikaria)
"Gaur egun erdi modan dagoen metal melodikoarekin etorri dira. Ondo eman dute egurra baina melodiarekin nahastuta, estiloak eskatzen duen moduan. Hirukotean defendatu dute saioa eta hori ere kontuan hartzekoa da ze ez da egon bateгe gaizki".

**Ikusleek esana** > Leire Cortes
"Berri Txarrak eta horrelakoak ekarri dizkidate gogora eta gustuko ditut. Bi abeslari egotea ere gustatu zait; biek zeuzkaten ahots politak baina baxu xamar entzuten zitzaien. Bestela, ondo egin dutela iruditzen zait eta abestiak ere asko gustatu zaizkit, estiloa ondo landuta daukate".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Ondo egon da eta estilo barruko molde guztiak bete dituzte. Horrez gain, alde melodikoak oso zainduta zekartzaten eta horrek asko orekatu du emaitza orokorra. Estilo oso ezaguna eta jarraitua da gurean eta, horregatik, agian euren ukitu bereizgarria falta izan zaie baina jotzen daroaten denbora urria ere kontuan hartzekoa izan beharko litzateke".

**Taldekideek esana**
"Inpresio onarekin amaitu dugu baina jakin ere badakigu hobeto egin genezakeela. Urduri ere bageunden baina uste dut disimulatzen ere jakin dugula. Ahal izan duguna egin dugu eta ez gara kexatzen".

## Publikoaren Saria

Eman zure botoa, kontzertuko sarreraren atzealdean zure gustuko taldea aukeratuta.

| | |
|---|---|
| 1 | **BITTER HONEY** ARRASATE Botoen % 12,07 |
| 2 | **THE 5 TWISTERS** ARRASATE Botoen % 11,17 |
| 3 | **FOXY BOXXI** ARRASATE Botoen % 9,09 |
| 4 | **LOS VIERNES AL RON** ANTZUOLA Botoen % 8,94 |
| 5 | **IGOR SAN JUAN** ARETXABALETA Botoen % 8,08 |
| 6 | **MERY MAY** ARRASATE Botoen % 7,84 |
| 7 | **SCAM** ARETXABALETA Botoen % 7,75 |
| 8 | **DAMUDOT** MALLABIA Botoen % 6,56 |
| 9 | **NORMAN** EIBAR Botoen % 6,26 |
| 10 | **BRANKAN** BERRIZ-MARKINA Botoen % 5,07 |
| 11 | **NI NEU** EIBAR Botoen % 4,02 |
| 12 | **LORD WITCH** BERGARA Botoen % 3,73 |
| 13 | **ADI HOLDEN** BERGARA Botoen % 2,07 |
| 14 | **TURBOSHIT** BERGARA Botoen % 2,07 |
| 15 | **HILBETE** DURANGO Botoen % 1,94 |
| 16 | **ARMY-ARMA** ZORNOTZA Botoen % 1,64 |
| 17 | **YMOTEK** ABADIÑO Botoen % 1,34 |
| 18 | **THE MOTHER FUCKERS** ARRASATE Botoen % 0,3 |
| 19 | **FLIPIN FOLK** EIBAR-ERMUA Botoen % 0 |
| 20 | **ROCK PRIVADO** OÑATI Botoen % 0 |
| 21 | **THE WET BAND** MUTRIKU Botoen % 0 |
| 22 | **BARUA BANDA** ESKORIATZA Botoen % 0 |
| 23 | **TUESDAY EVENINGS** DURANGO Botoen % 0 |
| 24 | **REVELPHONE** SORALUZE Botoen % 0 |


Funky ukituekin, Foxy Boxxik ikusleen oniritzia izan zuen txaloek


Normaneko abeslaria: indarra eta eromena.


Igorren bateria jotzailea.


Ikuskizuna ere Normanekin.


Hilbetekoek azkenak jo zuten baina gogotsu.


Jolasean Normanekoak.


Igor San Juan.


Foxy Boxxiko Maria, guztia ematen.


Hilbete.


Usoa Agirre / Maider Arregi

## 'Fans' ugari lehen ilaran, dena ematen

Ez genituen Espaloiera inguratutako denak kontatu, baina egubakoitzean orain arteko betekadarik handiena egon zela esango genuke. Jendea hasiera hasieratik lehen lerroan egon zen eta horrek giroa asko berotu zuen. Talde bakoitzak bere jarraitzaileak izan zituen aurrean. **Foxykoek** arrasatearrak ekarri zituzten; **Igor San Juanek** Aretxabaleta erdi ekarri zuen; **Normanekin** dantzan ibili ziren eibartarrak; eta **Hilbeterekin** burua mugitzen lehen ilaran durangarrak.

**Foxy Boxxikoak** gazteak badira ere, badakite ondo beren burua saltzen. Kontzertua bukatu bezain laster hor ibili ziren jende artean euren maketa saltzen. Beste taldeendako irakaspen bikaina.

Normanen emanaldian, **Kokeineko Haritz Lete** eta Eibarko *fans*-ak ere lehen ilaran argazki eta bideo kamerekin momentua inmortalizatzen ikusi genituen.

**Bitter Honeyko Aitor** abeslaria ere han zegoen konpetentziari begira adi-adi. Ideia berriak hartzen egongo ote zen? Ke artean **El Arrebatoko** abeslaria ikustea ere iruditu zitzaigun. Baina, ez. Danbakak ez ditu Sevillarainoko mugak oraindik ireki.

### Abenduaren 12an

- > FlipinFolk (Ermua-Eibar)
- > Rock Privado (Oñati)
- > The Wet Band (Mutriku)
- > Turboshit (Bergara)

HAN IRITZIA EMAN DIGUTE

**Eli Pagoaga**
Eibar

"Onenak Norman dira, zalantza barik daukaten estilo bereziarengatik eta baita ere talde oso ona delako. Gainera sinbolismo eta ezaugarri ezberdinak dauzkate eta talderik bereziena da. Gainontzeko taldeetatik Foxy Boxxi gustatu zait asko".

**Amaia Mujika**
Arrasate

"Musika gustagarriena Igor San Juanena izan da nire ustez. Gainera jendea asko animatu da haren kontzertuan. Harrigarrienak baina Normanekoak izan dira baina azkenean luze egin zait. Foxy Boxxikoak ere oso ondo, konbentzitu egin naute".

**Gaizka Arkarazo**
Durango

"Estilo asko daude eta zaila iruditzen zait horrelako lehiaketa baten taldeak baloratzea. Talde guztiek daukate gutxieneko maila eta agian Norman izan da teknikoki onena. Hor daude Hilbetekoak ere, oso ondo egin dutela eta baita Foxy Boxxi taldea ere".

**Julen Ugalde**
Mutriku

"Niri rock-and-rolla asko gustatzen zait eta ezusteko polita hartu dut Foxy Boxxikoekin. Oso onak dira eta hobeak izan daitezke oraindik. Bigarren bat aitatzeko Norman esango dut hauek benetan saio borobila egin dute eta, indar handikoa".

**Maitane Barrutia**
Durango

"Zaila da bat baloratzea baina nik Foxy Boxxi eta Hilbete aukeratuko nituzke. Biak dira talde gazteak eta euren estiloan oso onak. Aukera polita izan dute lehiaketan parte hartzeko eta bi taldeek egin dute oso ondo. Gustu kontuagatik, Hilbeterekin geratzen naiz".


7. Gure URTEURRENA ospatu
Urtebetean
HIPOTEKA
DOAN!*
Jolastu
Gorbeiako Erruleta
eta irabazi
milaka sari:
600€ SOLDATA
hilabetero urte bat bitartean
erosketa txarteletan
500€ SOLDATA
hilabetero urte bat bitartean
erosketa txarteletan
300€ SOLDATA
hilabetero urte bat bitartean
erosketa txarteletan
PROMOZIOAK 2008KO AZAROAREN 21ETIK
ABENDUAREN 20RA IRAUNGO DU.
*2008KO AZAROAREN 21EAN INDARREAN DAUDEN
HIPOTEKA MAILEGUETARAKO.
URTEKO 12.000 EUROKO GEHIENEKO MUGAREKIN
(ATXIKIPENA BARNE).
BALDINTZAK GORBEIA MERKATARITZA PARKEAREN
GERENTZIA BULEGOETAN KONTSULTA DAITEZKE
GORBEIA
Carrefour
DECATHLON
Norauto
BRICO DEPÔT
i'm lovin' it
merkal calzados
King Jouet
YELMO CINES GORBEIA
MUEBLES MAX DESCUENTO
GORBEIA
errazago, azkarrago, erosoago, merkeago
IMAGEN21

**PAILAZOAK** > PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTS

# Umeen laguntzaz altxor bila ibili ziren piratak

## Eskoriatzako kiroldegia jendez gainezka izan zen zapatuan 'Piratak' ikuskizunaren estreinaldian

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ESKORIATZA

Eskoriatza abordatzera etorri ziren zapatuan Piratak. Hori da Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizun berriaren izenburua eta, ume eta heldu, denak zeuden kiroldegian piraten zain.

Eskenatokian, ordea, ez ziren bakarrik egon. Kattalin pirata zain zeukaten irlan, baita Petrol gaiztoa eta haren laguntzaile Nahas-Borras bikotea ere.

**ALTXOR BILA JOLASA**

Kattalin piratak Altxorraren Bila jolaserako txartelak ezkutatu orduko azaldu ziren Petrol altxor bilatzaile gaiztoa eta laguntzaileak irlara altxorra non ote zen galdezka. Umeak, argiak izanik, ez zieten lagundu kantuz zirikatu zituzten arren.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen txanda etorri zen gero. Txartel bila hasi ziren umeek horietatik gertuago ala urrunago egon hotz eta bero oihu egiten zieten bitartean.

Pirritx izan zen txartela aurkitzen lehena eta altxorrerako pista lortzeko probak egin zituzten banan-banan. Umorea zabaltzea egokitu zitzaion Pirritxi eta horretan jardun zuten kantuz eta umeak dantzan ipiniz.

Marimototsek txartela aurkitutakoan umeek txaloz, putz eginez eta eskuak altxatuz sortutako itsas ekaitzari eta marrazoari egin behar izan zieten aurre pailazoek ausardia erakutsiz euskal piraten kanta abestuz.

Porrotxek irudimena erakustea egokitu zitzaion magia trukuekin umeek aho zabalik begiratzen zioten bitartean. Magiarekin ez ezik, pirata alperraren kantarekin ere harritu zituzten umeak.

**PETROL GAIZTOA**

Pailazo bakoitzak bere proba gainditu orduko Petrol altxor bilatzaile gaiztoa xantaia egitera agertu zitzaien. Pirritx eta Marimotots ez ziren haren tranpan erori, bai, ordea, Porrotx, umeek Petrolekin ez joatea gomendatu arren.

Pirritx, Marimotots eta Kattalin Porrotxen bila hasi zirenean azaldu zen Petrol eta Kattalinek ezagutu egin zuen lapur gezurtia eta Porrotx itzultzearen truke altxorra non zegoen esan zien Petroli eta laguntzaileei. Gezurrezko altxorra zen, ordea, eta umeak barrez lehertu ziren hori ikusita.

Umeak ez ezik pailazoak, denak elkarrekin, erabat alai zeudela adierazi zuten eta laugarren proba denek batera egin zuten. Ikuskizunean barrena horretan jardun arren, umeengan ilusioa eragitea proposatu zien Kattalinek eta hala egin zuten kantuan berriz ere.

Piratek munduan barrena bidaiatzen dutela erakutsiz hainbat txokotako doinuak ekarri zituzten ikuskizunean barrena: afrikar kutsukoak, Kubako erritmodunak eta gureak, noski, Kaxianoren *Itsasontzi baten* kantaren bertsioa ere egin zuten amaiera aldera. Taula gainetik kiroldegian eurekin batera kantuan eta dantzan ziharduten umeak agurtu zituzten.

**PATXO ESKE**

Amaitu zen ikuskizuna, ez, ordea pailazoen jarduna. Taula gainetik jaitsi orduko abordatu zituzten pirata txikiek euren marrubizko eta txokolatezko patxo, sinadura eta argazki eske.

Pirritx eta Marimotots nekatuta baina pozik ziren eta esan ziguten: "umeek asko lagundu digute eta ikusi dugu oso euskal pirata bihurriak garela bai gu eta baita umeak ere".

Altxorra aurkituta pozik joan ziren Euskal Herrian zabaltzera. "Aurkitu dugun altxorra ez da lurpean ezkutatuta egoten, ezpainetan dugu jasotzeko eta emateko. Euskara da, eta patxoekin batera partekatuz gero, hartzen du balio handiena", esan zigun Porrotxek.


Euskal pirata handiak eta txikiak bihurriak direla esan ziguten pailazoek. I.A.


Ikuskizunaren ostean patxo mordoa banatu zuten eta umeekin argazkiak atera. I.A.



LIERNI ALTUNA

## Julio Soto irabazle Bertxoko txapelketan

Aramaioko eskolako jangelan 75 lagun inguru elkartu ziren egubakoitz iluntzean Bertxoko txapelketako finalaren aitzakian. Giro polita sortu zen besteak beste bideo irudi batzuk gaitzat hartuta kantatu zutenean edo euren "laranja erdia" bilatzeko antzerkia egin zutenean. Guztiek maila polita erakutsi zuten eta amaieran Julio Soto nafarra izan zen txapeldun.

**ZINEMA** > FILM LABURRAK

# Txolarte elkartekoek irabazi zuten Bergarako Film Laburren III. Lehiaketa

## Guztira 14 lan aurkeztu dira lehiaketara eta bigarren saria Arrasateko Otavio Sendoyak jaso du


Txolarteko kideak, Kultura zinegotzia eta Otavio Sendoya sari banaketan. I.A.

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Egubakoitzean, bigarren film emanaldiaren ostean, banatu zituzten aurtengo Bergarako Film Laburren Lehiaketako sariak Zabalotegi aretoan.

Txolarte elkarteak jaso zuen 400 euroko saria, baita hunkituta jaso ere. Aurrez ere sariak jasotakoak dira bai Donostian eta baita Italian ere. Lantegi bateko langileek nagusiaren zorroztasunaren aurrean egindako protesta islatzen du *Tariro-Tariro* filmeak umorez.

**BI SARI, BI KOLEKTIBO**

Arrasatera joan da 300 euroko bigarren saria Otavio Sendoyarengana, hain zuzen ere. *Elephant* filmean Charo Guridi adineko emakume arrasatearraren bizimodua azaltzen du.

Antolatzaileek aipatu dute gizarteak hein batean baztertzen dituen bi kolektibo saritu dituztela. Urritasunak dituztenen elkartea da Txolarte eta hirugarren adineko emakume bat da *Elephant* filmako ardatza.

# IRAGARKI SAILKATUAK

| 1. ETXEBIZITZAK | 3. LOKALAK | 5. IRAKASKUNTZA | 7. ANIMALIAK | 9. HARREMANAK |
|---|---|---|---|---|
| 101. SALDU | 301. SALDU | 501. JASO | 701. SALDU | 901. AGURRAK |
| 102. EROSI | 302. EROSI | 502. EMAN | 702. EROSI | 902. HARREMANAK |
| 103. ERRENTAN EMAN | 303. ERRENTAN EMAN | 503. BESTELAKOAK | 703. EMAN | 903. DEIAK |
| 104. ERRENTAN HARTU | 304. ERRENTAN HARTU | | 704. BESTELAKOAK | 904. BESTELAKOAK |
| 105. ETXEAK OSATU | 305. BESTELAKOAK | | | |
| 106. BESTELAKOAK | | | | |
| **2. GARAJEAK** | **4. LANA** | **6. MOTORRA** | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| 201. SALDU | 401. ESKAINTZAK | 601. SALDU | 801. SALDU | |
| 202. EROSI | 402. ESKAERAK | 602. EROSI | 802. EROSI | |
| 203. ERRENTAN EMAN | 403. BESTELAKOAK | 603. ALOKATU | 803. EMAN | |
| 204. ERRENTAN HARTU | | 603. KONPONDU | 804. HARTU | |
| 205. BESTELAKOAK | | 604. BESTELAKOAK | 805. TRUKATU | |
| | | | 806. GALDU | |
| | | | 807. AURKITU | |
| | | | 808. BESTELAKOAK | |

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 88 metro koadroko etxebizitza salgai. Balkoia, garajea, trastelekua eta igogailua. Etxeak 7 urte ditu. 250.000 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 697 78 07 29.

**Antzuola.** Estreinatu gabeko etxebizitza salgai plaza ondoan. Deitu ezazu telefono honetara: 657 70 94 20.

**Bergara.** Apartamentua salgai San Antonion. Sukaldea, egongela, logela bat, komuna, balkoia eta trastelekua. 46 metro koadro. Guztiz berritua eta jantzia, bizi izatera sartzeko moduan. 152.000 euro. Prezio negoziagarria eta ordaintzeko erraztasunak. Deitu ezazu telefono honetara: 635 70 49 74.

**Bergara.** Atiko berria saldu edo errentan ematen da erdigunean. Logela bat. 70 metro koadroko terraza. Aire girotua eta kontsumo txikiko berogailuak. Igogailua. Deitu ezazu telefono honetara: 616 87 29 65.

**Oñati.** Etxebizitza saldu edo errentan ematen da Olakuan. Hiru logela, sukaldea eta bi komun berrituak; eta jangela. Garajea. Deitu ezazu telefono honetara: 943 53 36 74 edo 635 06 24 79.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Komunitateko gastu barik. Deitu ezazu telefono honetara: 647 57 84 81.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Hiru logela eta bi komun. Berogailuarekin. Ganbara. Igogailua. Eguzkitsua. Deitu ezazu telefono honetara: 628 26 65 77.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean. Bi edo hiru logela. Presazkoa. 636 25 56 68.

**Arrasate.** Mutil gazte, euskaldun eta arduratsuak etxebizitza hartuko luke errentan. Lan finkoa. 647 08 68 75.

**Bergara.** Berogailudun eta telefono lineadun etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu ezazu telefono honetara: 686 52 15 98.

**Bergara.** Baserria errentan hartuko nuke Bergaran edo inguruan. Deitu ezazu telefono honetara: 665 70 21 92.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke Bergaran. Deitu ezazu telefono honetara: 610 91 33 40.

**Debagoiena.** Etxea errentan hartu nahi nuke, pertsona batentzako. Deitu ezazu telefono honetara: 653 70 84 09.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela errentan ematen da, erosoa eta ekonomikoa. Deitu ezazu telefono honetara: 639 28 53 50.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Erosoa eta ekonomikoa. Deitu ezazu telefono hauetara: 666 21 88 95 edo 943 77 07 01.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu Arrasateko erdialdean dagoen etxebizitza osatzeko. Etxe handia, wi-fiarekin. Deitu ezazu telefono honetara: 699 28 99 06 edo 678 76 28 22.

**Arrasate** Arrasaten kooperatibetan lanien dabilen mutil bat beste langile baten bila dago pisua konpartitzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 628 08 75 89.

**Bergara.** Bi logela ematen ditut errentan. Bat bi lagunendako (hileko 350 euro) eta bestea lagun batendako (hileko 250 euro). Sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Ez da kontraturik egingo. Deitu ezazu telefono hauetara: 658 77 90 46 edo 943 76 38 48.

**Bergara.** Logela ematen da errentan Bolun, sukalderako eskubidearekin. Deitu ezazu telefono honetara: 670 85 86 68.

**Donostia.** Neska euskaldun bila gabiltza otsailetik aurrera etxebizitza osatzeko. Etxea Matia kale ondoan dago. Hondartzatik eta unibertsitatetatik gertu. Interesatuak deitu lasai edo bidali posta bat: ogerrikagoitia@begira.com. Deitu ezazu telefono honetara: 645 72 58 41.

